

# Arrasate

P R E S S

ELKARRIZKETA

**Pako Iriondo**

KIROLAK

**Mondraren  
azken partidua**

Korrespontsalak

**Eguneroko  
berrien bila**



OPORRETAN...

# UDA LEKUAK



**OHoko**  
5., 6., 7. eta 8. maila

**G A R A I O**

Uztailaren 3tik 14ra

Piragua  
Bizikleta

Tailerrak: • Telebista  
• Irratia  
• Malabarrak

Nekazaritza

**OHoko**  
5. eta 6. maila

**IPAR-HEGO TRUK  
ARRASATE-LAPURDI**

Uztailaren 17tik 30era

Bidaiak  
Abentura  
Kirolak

**OHoko**  
1., 2., 3., 4., 5., 6., 7. eta 8. maila

**ARRASATEN ZEHAR**

Bi txanda:  
Uztailaren 3tik 14ra  
Uztailaren 17tik 30era

Akanpadak  
Natura-Kirolak  
Txangoak  
Baserri giroa

**HAURRESKOLA**  
1., 2., 3. maila

**BABYLEKUAK**

Bi txanda:  
Uztailaren 3tik 14ra  
Uztailaren 17tik 30era

Jolasak  
Irteeratxoak  
Eskulantxoak

Izen ematea

Txatxilipurdin (Pablo Uranga, 4) • Tfnoa: 79 54 46

**Maiatzaren 26ra arte!!**

# Lehen jaunartzea eta, azkena?

**E**z dut nire Lehen Jaunartzearen inolako oroitzapenik, ez argazkirik, ez oroigarrik. Noiz egin nuen ere ez dakit, sei zazpi urterekin egingo nuen agian. "Ze polita izan da nire hilobaren Jaunartzea", "Ah! ze elizkizun ederra" eta holako espresioak besterik ez ditut entzuten aspaldian. Espektakuloa, gehiegizko gastua, opariak, gezurrezko jantziak,... bihurtu ditugu Lehen Jaunartzeak, eta min ematen dit daukagun egoerak. Ez dut ulertzen, ez dut gogoko behintzat, gaur egungo "moda". Ez da hori etorkizunerako nahi dugun Eliza.

Izan ere ospakizunaren zentzua galdu dugulakoan nago, eta azalkean, huskerian erori. Sinismen ezak jotako gizartean bizi gara eta, sinismenaren ordeztu "Ritologia" mantentzen dugu, sinismenaren biziindarra ahulduz eta festaburu "puntuala", lore polita edo hunkigarria, bihurtuz; usai gabeko lorea ordea, lore artifiziala, etorkizunik gabea.

Ez zidaten nonbait festa haundi-



rik eskaini nire Lehen Jaunartzean, ez opari garestirik, ez...; baina nire ingurukoek sinismenaren mamia, zentzua, bizipen, ohitura, elizkoitasuna eta hainbat gauza baliozgarri transmititu eta oparitu zidaten.

Ez dut inolako "traumarik" nire Lehen-Jaunartze eguna arrunta xamarra izan zela eta; ordea, poza ta esker ona sentitzen dut maite nindutenak bizitzan zehar egin zidaten sinismenaren neurrigabeko opariarengatik. Zeren beharrea daude gure gaurko haur maitagarriak? opari eta jostailu, eskupeko eta festa faltan? edo eredu garbi, leial, sendo ta sakon faltan? Ez dugu ezer egiten bizitzeko medio ugari eskeintzen badiugu eta ez jator ta sakon bizitzeko arrazoirik.

Nire esperientzia balio bazaizue, badakizute gure neka/mutikoei, zuen seme/alabei, zer eskeini, zer oparitu, huts egin ez diezaiegun.

**"SAGARRAGA"  
JOSE MARI  
ASTIGARRAGA**

**GATZAGAN,  
ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ  
jatetxea**




**Memesa  
79 42 22**



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• **ARRASATE PRESS** •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Inzar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kofi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martínez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.  
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkia:** Maider Egües

**URRATS**  
**AHOLKULARITZA**  
 GARIBAI, 3  
 Tfnoa: 79 87 74  
 ARRASATE

**IBARRA**  
**Garajea S.L.**  
 **EBRO NISSAN**  
 Garajea  
 Automobil-konponketa  
 Garabi zerbitzua

**HIES**  
**EKIMENA**  
 Astelehen, astearte  
 eta ostiral  
 5etatik 8etara.  
 Tfnoa: 79 26 99

**Altzariak**  
**Diseinua**  
**Apainketa**  
  
 Bizkai, 1 ARETXABALETA  
 Tfnoa: 79 08 07

**BASABE**  
**JATETXEA**  
 Menu eta afariak  
 Boda eta banketeak  
 Tfnoa: 79 91 84  
 ARETXABALETA

**TTUKUN**  
 Fotokopiak  
 Enkuademazioak  
 Koloretan fotokopiak  
 Planoen erreproduzioa  
 Offseta  
 Ferrerías, 23 ARRASATE  
 Tfnoa: 79 46 62

•••••  
**Aramaixoko arrak eta emeak**

**H**i, ze klase gutxiko kultura batzordea duzue Aramaixon?" aurpegiratu zidan ezagun batek joan den astean. Aramaixoko kultura udal batzordeak J.L. Ormaetxeari erantzuteko ARRASATE PRESSEN ateratako eskutitzaz ari zen, aramai-xoarrak barik aramaixotarrak garelara erabakitzen zuen hartaz.

Egia esateko J.L. Ormaetxearenak mala letxe gehitxo zeukan (horrelakoak bota zituen: Badira (herri) batzuk madarikatu samarrak direnak. Horietan bat Aramaio. Ez dakit zer gertatzen den herri honekin). Berak jakingo du zer dela-ta tripetako min hori. Baina aitortu behar da hizkuntzaren ikuspegitik arrazoi duela eta Aramaixokuok aramai-xoarrak garelara denok, ar nahiz eme. Bestela, nola ulertu esate baterako, Etxaguengoak, Barajuengoak edo kalekoak... etxandarrak, barajondarrak eta kaletarrak izatea baina Untzilakoak, Gantzagakoak edo Azkoagakoak... untzilarrak, gantzarrak eta azkuarrak? Lehenetan emakumeak ere sartzan direlako baina besteetan ez, kultura batzordeak insinuatzen duen bezala, ala zer? Bergararrak, Durangoarrak, Nafarrak, Arabarrak, Donostiarrak, Espainiarrak, Galiziarrak... ere beste hainbeste, orduan?

Baina arazo linguistikoz aparte kultura batzordearen erantzunaren estiloa da kezkatzen nauena. Herritar baten eskutitz erretxinuari Udaleko batzorde batek, maila ofizialean beraz, beste horrenbeste erretxinarekin erantzutea ez da egokia inon-

dik ere, eta gutxiago erantzunean arrazoi ganorazkorik ematen ez denean. Errespeta eta oreka erakusten aurrenak izan beharko luke eta herritarrei arrazoi bidez erantzuten eredu. Horrela behintzat hasieran esandako moduko lotsarik ez genuke jasan beharrik izango.

**XABIER LARRAÑAGA**

•••••  
**Estatu espainola, Estatu terrorista**

**B**erriro ere, Estatu espainoleko kriminalak salatu beharrean gaude. Ez zen nahikoa Josi eta Josean, krudelki torturatu, basakeriaz txikitu eta fosa komun eta kare bizitan desegitea, orain euren gorpuak bahitzen dituzte.

Alderdi politikoek euren ezinean edo beste batzuen kasuan, adostasunean, jarra pasibo bat azaltzen dute gertaera krudel hauen aurrean, horren adibide gisa, Gasteizko Parlamentua dugu, bertan Jauregik GAL kasuarekiko duen erlazio zuzena ikertzea eragotzi zuten, hauen artean PNV genuelarik.

Irakasle Eskolako ikasleek guzti honen aurrean gure ezadostasuna adierazteko, maiatzaren 12an Borroka Egunarekin bat egitea erabaki genuen.

Espero dezagun mobilizazio behar hau azkena izatea, eta Estatu errepresibo honek, "Gerra zikina" alde batera utziz, "Elkarrizketaren" bidea jorratzea.

**ESKORIATZAKO IRAKASLE  
 ESKOLAKO IKASLEAK**

•••••  
**Aramaixon mamuak**

**A**ramaion, beste herrietan bezala, hauteskundeetako kanpaina hasita dago, Hau dela eta, Unidad Alavesa-k aurkeztutako hautagaien zerrendakoak ezagutu ditugu eta, herri honetara etortzea erabakitzen badute, gure herria, gure jendea, udal-letxea, kaleak, baserriak, eta nola ez, zein hizkuntzatan eta nola hitzegiten dugun gus-tora erakutsiko diegu.

Aramaioko udalherriaren hauteskundeetan aurkeztutako lau kandidaturen artean batek bizilagunei izugarriko harridura sortu digu: Unidad Alavesa-ko Javier Moraza, Rocio Moraga eta Jorge Vigurak burutzen dutenak hain zuzen. UA-k aurkeztu dituen bederatzi hautagaiak eta hiru ordezkokoak herrian guztiz ezezagunak dira, ez dakigu nongoak diren, ezta Aramaion lurrazte hipotetiko honekin ere zer lortzea nahi duten.

Beren afiliatuen, lagunen eta familien artean hainbat izen batu eta Arabako hauteskunde zerrenda desberdinetan banatzeko inolako erreparurik ikusi ez duten Unidad Alavesa bezalako taldeen lotsagabekeria apartekoa dela nabaria da.

Demokraziak, botu orokorrerako eskubideak auke-ra asko ematen ditu, horietako batzuk ia zentzugabeak izan arren, Aramaion Unidad Alavesa-ren mamuhautagaiekin gertatzen den bezala. Beraz, Aramaioko bizilaguna naizenez, gure herrian jauzi nahi duten mamu hauei ez etortzea eskatzen diet.

**ARAMAIXOAR BAT**

# Diru larregi gastatzen dute alderdiek hauteskundeetan?



**Consuelo Larreina**  
**Etxekoandrea**  
**(52 urte)**

Baietz uste dut, baina politikoez propaganda egin behar dute, ez? Alderdi asko dagoenez, propaganda egin behar izaten dute.




**Tomas Agirreurreta**  
**Jubilatua**  
**(73 urte)**

Bai, larregi gastatzen dute. Diru hori jubilatuei eman beharko ligukete, gutxi ematen digute eta.



**Mari Carmen Kabiketa**  
**Langilea**  
**(37 urte)**

Bai asko, baina aurren gutxiago gastatzen ari direla iruditzen zait.




**Jose Bruño**  
**Langilea**  
**(57 urte)**

Bai, dextente. Propaganda egiten ez lukete hainbeste diru gastatu beharko.



**Nerea Foronda**  
**Ikaslea**  
**(17 urte)**

Nahikoa, ezta? Kartelak behintzat ikusten dira baina aurren beharbada zarata gutxiago ateratzen ari dira. Hobe izango litzateke diru hori beste zerbaitean gastatuko balute.




**Asier Del Rio**  
**Ikaslea**  
**(20 urte)**

Nire ustez gehiegi. Hala ere kanpoan egon naiz orain arte eta ez dakit ziur hauteskunde hauetan propaganda asko egiten ari diren.



**Isabel Asensio**  
**Etxekoandrea**  
**(73 urte)**

Telebistan hori entzun dut baina ez dakit. Nik ez dut hauteskunde kontua jarraitzen.



**Gregorio Errasti**  
**Jubilatua**  
**(63 urte)**

Gutxi behintzat ez. Aurren hala ere uste dut sekula baino propaganda gutxiago egiten ari direla.

Zure publizitatea  
**ARRASATE PRESSen**

☎ 77 08 15

Astero 6.000 ale Arrasateko etxeetan

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. ....79 53 00  
 Igoalatorioa .....79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) .....79 39 00  
 (emakumeak) .....79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua .....79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara .....76 55 76

**DYA**  
 Antzuola .....76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) .....79 13 57  
 (Txanda hartzeko) .....77 03 46  
 Oñati .....77 07 21  
 Eskoriatza .....78 08 52  
 Aretxabaleta .....79 98 58  
 Aramaio .....(945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantiak .....45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati .....78 04 11  
 Bergara .....76 14 69  
 Arrasate .....79 14 39  
 Aretxabaleta .....79 10 52  
 Eskoriatza .....79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate .....79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea .....79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua .....79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .....78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .....79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) .....12 01 62  
 Gasa .....900 40 05 23  
 .....79 78 44  
 .....79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak .....79 12 22  
 P.E.S.A. ....79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza .....79 72 11  
 Abaroa jubilatuena egoitza .....79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....79 87 77  
 KIUB-OMIC .....79 51 55

**Monterrongo liburutegia**  
 Monterron .....77 01 05

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 19**

Egunez eta gauez : Azkoaga. Ferrerías.

**Larunbata 20**

Egunez eta gauez : Español. Iturriotz.

**Igandea 21**

Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.

**Astelehena 22**

Egunez eta gauez :Irizar. Erguin.

**Astearte 23**

Egunez eta gauez: Amezua. Santamaina.

**Asteazkena 24**

Egunez eta gauez : Ruiz. Maala.

**Osteguna 25**

Egunez eta gauez : Morales. San Andres

**19 OSTIRALA**

• **ZINEA**  
 "El rey del rio" 7etan eta 10etan.

• **MENDI IRTEERA**  
 Besaide mendi elkarteak Ane-tora mendi eski irteera anto-latu du. Irteera arratsalde-ko 4retan Garibaitik.

• **PSE-EEren PROGRAMAREN AURKEZPENA**  
 Arratsaldeko 7etan Casa del Pueblon.

• **HITZALDIA ZUTIK**  
 Gaia: "Argelia Sutan". Hizlaria: Alfonso Bolada, arabista. Monterronen arratsaldeko 7etan.



**HAITZ ESKALADA IKASTAROA**

**Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak Haitz Eskalada ikastaroa antolatu du maiatzaren 27-28 eta ekainaren 3 eta 4rako. Nora: Amezketa, Txindoki eta Eginora. Maila: hastapena eta hobekuntza. Izena emateko maiatzaren 16 eta 17an arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara Besaideren Egoitzan.**

**20 LARUNBATA**

• **ZINEA**  
 "Estallido" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **EUSKARAREN EGUNA ARETXABALETAN**  
 12etan Herriko produktuen degustazioa Loramendiren lokalean. 2etan herri bazkaria Durana kalean. 4etan umeendako jolasak. 5etan Euskal dantzak. 7.30etan Emakumeen arteko Bolo txapelketa. 10etan Maixa eta Itziarrekin erromeria Durana kalean eta Gaztetxean SS-77 eta Heriotza taldeekin kontzertua.

• **JUBILATUEN EGUNA**  
 Goizeko 11etan jaia adierazteko kalejira eta etxaflero jaurtiketa. 12.30etan meza San Juan elizan. 1.45 etan Garibai kaletik kiroldegira autobusen irteera. 2etan bazkaria eta 4retan urte gehien duten gizon eta emakumei sari banaketa.

• **KONTZERTUA DURANGON**  
 "Heriotza" eta "Dut" taldeen kontzertua Durangon gaueko 10etan. Sarrera doan.

• **TRIKILARIEN JAI MUNDIALA**  
 Goizeko 8etan Tellamendira mendi irteera Portaloitik. 11.30etan Garagartzan ohezale, hankamotz eta lanpetuekin elkartu eta hamaiketako. 12.30etan Futbol partidua. 2etan Garagartzako auzo etxean bazkaria.

• **TXATXILIPURDI LUDOTEKA**  
 Txatxilipurdi AEDko ludoteka ibiltaria San Andres auzoko alkatetzan goizeko 11etatik 1etara. OHOKo lehen mailatik zortzigarren maila bitartekoei zuzenduta.

• **HBren LUNTXA**  
 Eguerdiko 12.30etan Arrano Elkarte.

**21 IGANDEA**

• **ZINEA**  
 "Estallido" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **OTALA ZELAI EGUNA**  
 10.30etan Txistulariekin diana. 11etan Trikitilarietara Ojala zelaira igoera. 11.30etatik ordu bata arte animaliekin jokuak Ojala Zelaien. 1etan bertsolariak. 1.30etatik 2etara Trikitilariak. 4.30etan taldeen arteko jokuak. 6etan Dantza saioa. 6.30etatik 8.30etara trikitilarietara dantzaldia Ojala zelaien eta gaueko 10etatik 12etara Alkoba taldearekin dantzaldia Durana kalean.

• **ZIKLOTURISTEN IRTEERA**  
 Arrasateko zikloturisten irteera. Ibilbidea: Arrasate, Kanpanzar, Elorrio, Mañaria, urkiola, Otxandio eta Arrasate, 72 kilometro. Irteera goizeko 9etan Monterrone-tik

**ESKULANEN ERAKUSKETA**

Maiatzaren 22tik 29ra Deba Garaiko Jubilatuetan eskulanen erakusketa Monterronen. Orduetgia: egunero 6etatik 8ak arte eta larunbat eta jaiegune-tan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

**HBren MANIFESTAZIO-RAKO AUTOBUSAK**

"Euskal Herria askatu" lemapean manifestazioa izango da Donostian maiatzaren 21ean goizeko 11.30etan. Arrasateko goizeko 10etan aterako dira autobusak. Izenematea Arrano Elkarte.

**22 ASTELEHENA**

- **ZINEA**  
"Estallido" 7etan eta 9.30etan.
- **EAREN HITZALDIA**  
Gaia: Etxebizitza sozialak. Hizlariak: Patxi Ormazabal, Esther Larrañaga eta Mikel Larrañaga. Monterronen arratsaldeko 7etan.
- **ASERTIBITATE IKASTAROA**  
Estresa gainditzeko tekniken ikastaroa maiatzaren 22tik 30a arte. Talde murriztuak. Ordutegia: goizeko 10etatik 12etara. Gizarte hezketarako zentruak antolatuta.

**23 ASTEARTEA**

- **ZINEA**  
"Estallido" 7etan eta 9.30etan.
- **DIPOSITIBA EMANALDIA ESKORIATZAN**  
Gaia: "Alaska". Hizlaria: Felipe Uriarte. Eskoriatzako Kultur Etxean arratsaldeko 7.30etan.
- **EKITALDI POLITIKOA EZKER BATUA**  
Antxon Karrera arituko da hizlari, Monterronen arratsaldeko 7etan.

**24 ASTEAZKENA**

- **MAHAINGURUA ZUTIK-ek ANTOLATUTA**  
Gaia: Ezkerrak alda dezake Udal-letxea. Hizlariak: Tere Saez (Batzarrekoa), Begoña Vesga (EB), Xabier Zubizarreta (HB) eta Kolektibo Libertarioko partaidea. Moderatzailea: Aitor Iturriaga, 7etan Pleno aretoan.
- **PSE-EE MITINA**  
Hizlariak: Guillermo Etxenike (Ekonomiako diputatua), Ana Miranda (Eurodiputatua), Mario Onaindia (senatorea), Esteban Eguren (batzar orokorreko partaidea) eta Ignacio Jimeno (Arrasateko alkategaia). Arratsaldeko 7etan Monterronen.
- **HITZALDIA BITERI EGOITZAN**  
Gaia: Informatikaren eragina". Hizlaria: Josu Aranbarri, Informatikako Eskolako Zuzendaria. Biteri egoitzako areto nagusian 6.45etan.

**25 OSTEGUNA**

- **DIPOSITIBA EMANALDIA ESKORIATZAN**  
Gaia: Verdon, eskalada. Emailea: Luis I. Gonzalez. Eskoriatzako Kultur Etxean arratsaldeko 7.30etan.

**KARTELAK BILTZEKO KANPAINA**

**AEDko Euskalan taldeak euskararen aldeko kartelak biltzeko kanpaina bati ekin dio. Kartel hauek lantegietan jarriko dira eta langileek euskaraz egitera bultzatzeko mezua izan beharko dute. Jasotako mezuak argitaratuko dira eta erakusketa bat antolatuko da. Teknika, materialak, neurriak... libreak. Jasotzeko epea uztailaren 3an bukatuko da eta lanak AEDra bidali behar dira (Pablo Uranga, 4 Behea).**



**HIRU HANDIAK**

Iradier Txangolari elkarteak Hiru handien 9. edizioa antolatu du. Gorbea, Anboto eta Aizkorri egun bakarrean ekainaren 10ean. Izena maiatzak 23 asteartea, arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara egin daiteke Besaideren Egoitzan. Prezioa 1.000 pta. Euskadiko Kutxa: K/K 080-0-01032-6. Izena eman ahal izateko federatu karnetaren eta N.A.N ren fotokopiak eraman behar dira eta Euskadiko Kutxan egindako ingresuaren agiria ere aurkeztea beharrezkoa da.



**ERRUSIAKO ORKESTRA NAZIONALA**

Maiatzaren 28 eta 29an Errusiako Orkestra Nazionalak eta Arrasateko abesbatzak, Goikobalu, kontzertua eskeiniko dute Amaia antzokian arratsaldeko 8etan.

Gaur pertsona bat gogoratzeko tartea egin nahi dut: Jon Salaberri. Berak, bere bizitzako azken urteetan gordeta bizi den marginatu bat izateko zenbaki guztiak zituen, izkutatu eta bere bakardadean HIESaz jota egotearren zoritxarrari buruz pentsatzen egoteak.

Jon Salaberri atzo HIESak jota hil zen, gutxi gorabehera 10 urtez jasan behar izan duen gaitzaz. 1985. inguruan seropositiboa zela jakin zuen, eta 4-5 urte beranduago ageri agerian zituen gaisotasunaren sintomak. Gaitz izugarriren bat duten askok bezala, Jonek bere gorpua uzteko tentaldia izan zuen, gurpildun aulki batean jarri eta zain zezaten eskatzekoa, baina kontrakoa egin zuen: aurpegia eman, jendaurrean hitzegin, bere gaisotasunaren berri eman, errealitate hori bizi dutenen arazoa azaldu... gizartearen oneritzia eta ulermena behar dutela adierazi.

Ez dakit zenbat jendek entzungo zuen, nik zorionez horretarako aukera izan nuen, eta aitortu behar dut on egin zidala, gaisotasun hau dutenen arazoa ulertzen lagundu zidala, eta eskertzen diot, batez ere gaur, bere heriotzaren berri jakin dugunean.

**Mariano Ferrer, 1995-5-11**



**Herri Irratia**

Apirilaren 3an joan nintzen INEMeko bulegoetara, (...) z antolatzen diren ikastaroei buruzko informazio bila. Nere txanda ailegatu zenean eskatu nion informazio hura, -euskaraz-, tokatu zitzaidan enplegatuari. "No te voy a entender; si quieres hablar con Arantxa..." izan zen erantzuna. (Gauza bera suertatu zait laupabost aldiz INEMeko bulego honetan azken 2-3 urtetan)...


Administrazioko zerbitzuetan euskararen erabilerari buruzko legeak dioena ezagutzen zuten, nere eskubidea eta bere betebeharrak ba ote zekizkien eta beste hainbat galdera egin nizkion; bere erantzuna: "ez dakit; hori jakitea ez da nire obligazioa, gauza horiek nere nagusiei galdetu beharko diezu"....

**Txantxiku bat**  
(Gutunak sailean)

**KONTZEJUPETIK**

## Zergatik ez da lehendakarigairik aurkezten Leintze elkarteak?

**A**zken hamalau urteetan ni neu izan naiz Leintzeko, ehiza eta arrantzaren elkarteko lehendakaria eta urte asko direnez, orain uztea erabaki dut. Nire ustez gehiegizkoa da pertsona bat hainbeste urtez buru egotea eta elkarteak "diktadura" itxuririk har ez zezan hartu nuen erabakia. Hori dela eta, urte hasieran lehendakarigaiak aurkezteko epea zabaldu zen eta epea bukatuta inor azaldu ez zenez, orain berria zabaldu dugu.



**Heriberto Altuna**  
Leintzeko lehendakari ohia

Leintzen 500 bazkide inguru gaude eta nire iritziz beste batzuk hartu behar dute elkartearen gidaritza. Gertatzen dena zera da, jendea askotan komodoa dela eta inork ez duela ardurarik hartu nahi. Beharrezkoa da erreleboa norbaitek hartzea, momentu honetan elkarteak lo dago eta. Inor aurkezten ez bada, gainera, Euskadiko elkarte handien eta garrantzietsuenak garrantzia galduko du eta hori penagarria izango da. Elkarteak lehendakaririk ez izateak ez du esan nahi desagertu egingo denik, batzordeak egingo du eta gestore lana, baina lizentziak ezingo dira eman eta hori norberak egin beharko du.

Azken hiru urteotan 26 bazkide gazte sartu dira elkartera eta eurek hartu beharko lukete zuzendaritza. Elkarteak ez du diru arazorik, ekonomikoki egoera onean dago, beraz lehendakarigaia eta laguntzeko zazpi laguneko batzordea biltzea baino ez da behar. Hautagaiak aurkezteko epea maiatzaren 23an bukatuko da eta hauteskunde eguna ekainaren 14an izango da, jakina, hautagaririk badago.




# LASAGABASTER

**ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55





# Ignacio Jimeno (PSE-EE)

## “Herriak alkate sozialista behar du”

**Adina:** 51 urte.

Ezkondua. Bi seme alaba ditu.

Injinerua. Diputazioko Ingurugiro Zuzendaria.

**Afizioak:** Historiako liburuak irakurtzea eta bizikletaz ibiltzea.

### – Zer azpimarratuko zenuke PSE-EEren programatik?

– Orain dela hamar urte Arrasatek 31.000 biztanle zituen eta gaur egun kopuru hori 25.000-ra jeitsi da. Jendea lan egitera etortzen da Arrasatera baina beste herri batzuetara joaten da bizi izatera. Jeitsiera hori gelditu egin behar dugu, Arrasate herri atsegina izan dadin lortuz. Hemendik aurrera beste arlo batzuk gehiago jorratu behar ditugu, kulturaz eta aisialdiaz arduratu behar gara.

### – Zein emaitza lortzea espero duzue?

– Azken udal hautes-

kundeetan PSEk 3.100 boto lortu zituen eta EEk 1000. Bi alderdiak elkarturik daudenez, 4000 boto baino gehiago izatea espero dugu.

### – Alkate aukeratuko bazintuzte zer egingo zenuke herrian berehala?

– Udaletxeko atea irekiko nizkieke arrasatear guztiei edo dituzten arazok konpontzeko euren gana joango nintzateke. Izan ere, alkateak herriaren zerbitzura egon behar du.

### – Zer da PSE-EEk eman dezakeena eta beste alderdiek eman ezin dutena?

– Desberdintasunak konpontzen saiatuko da alderdi sozialista. Adibidez, auzoetako eta hiriguneko bizi baldintzak ez dira berdinak. Desberdintasun hori konpontzeko eta auzoak gerturatzeko, garraio publikoa bultzatuko dugu.

### – Gobernuan dagoen tripartitoak funtziona dezake Udalean?

– Zergatik ez? Gasteizen funtzionatzen badu... Hala ere tripartito hori zabaltzen saiatuko nintzateke. Beste alderdi batzue-ri ere taldean sartzeko atea irekiko nizkieke.

### – PSE-EEren helburua zein izango da: gobernu taldean parte hartzea edo alkatetza lortzea?

– Arrasatek alkate sozialista bat behar duela uste dugu eta horregatik alkatetza lortzea espero dugu. Hori posible izango ez balitz, gobernu taldean zintzotasunez lan egingo genuke.



Ignacio Jimeno (Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra)

### ■ EAJren programa

Arrasateko EAJk programaren aurkezpena egin zuen zapatuan Monterronen. Herriko bizitza kalitatea hobetzeko, herritar guztien parte hartzea bultzatu behar dela uste du Arrasateko Alderdi Jeltzaleak. Ekitaldian Roman Sudupe, Diputaziorako hautagaia izan zen eta bakeak duen garrantziaz hitzegin zuen.

### ■ ‘Zutik’ kanpaina

“Udaletxea gero eta urrutiago?” lemapean, hauteskunde kanpaina egingo dituen ekintzen berri eman zuen Zutiek martitzenean. Maiatzaren 24ean “ezkerrak alda dezake zerbait udaletxean?” gaia jorratuko dute, pleno aretoan, arratsaldeko 7etan.

### ■ Mitina eta aurkezpena

Martitzenean HBren mitina izan zen. Xabier Zubizarretak eta Itziar Aizpuruak hitzegin zuten ekitaldi politikoan. Asteazkenean, prentsaurrekoa eman zuten Arrasateko HBkoek programaren aurkezpena egiteko.

### ■ Ekitaldiak

- Maiatzaren 22an EAko Patxi Ormazabal, Esther Larrañaga eta Mikel Larrañagak etxebizitza sozialei buruz hitzegino dute. Monterronen, 7etan.

- Maiatzaren 23an, Ezker Batuaren ekitaldi politikoan Monterronen, 7etan. Antxon Karrera arituko da hizlari.

- Maiatzaren 24an, PSE-EEren mitina. Parte hartzaileak: Guillermo Etxenike, Ana Miranda, Mario Onaindia, Esteban Eguren, Ignacio Jimeno. Monterronen, arratsaldeko 7etan.

**Hitzarmena Udalarekin**

AED eta Txatxilipurdi elkarteek lankidetzarako hitzarmena sinatu zuten Udalarekin asteartean. Horren arabera, Udalaren hainbat ekintza antolatzeko ardura bere gain hartu dute bi elkarteek. AEDk zazpi milioi jasoko ditu auzolan-degiak, gazteen irteerak, literatur lehiaketak eta beste gauza batzuk antolatzeko. Txatxilipurdik hamazortzi milioi jasoko ditu udalekuak, asteburuko ekintzak eta Txikilandia antolatzeko. Auzoetako lokalen eta ludoteken gestioa ere Txatxilipurdik eramango du.

**Lazo urdina Udaletxean**

Astelehen arratsaldean lazo urdina jarri zuten Udaletzeko balkoian, Jose Maria Aldaiaren askatasuna eskatzeko. Astearte gauean norbaitek kendu egin zuen lazoa baina hurrengo egunean berriz ere jarri egin zuten. Ostiralean egin zen plenoan proposatu zuen EAJk lazo urdina jartzea eta HBk izan ezik, gainontzeko alderdiek onartu egin zuten proposamena.

**Jende gutxi Maiatza dantzan**

Ez zen jende asko izan Metros taldeak zapatuan eskaini zuen dantza ema-



**Jai euritsuak Musakolan**

Ostiralean eta zapatuan euria egin zuen arren, jende asko izan zen Musakolako jaietan. Urteroko zitari huts egin barik, hainbat motozale hurbildu zen Musakolara eta betiko moduan, astoa lagun zutela auzoaren independentzia eskatzeko manifestazioa egin zuten.

Astelehenean, San Isidro egunean, meza nagusia eman zuen Donostiako Gotzaiak, J.M Setienek Musakolako elizan. Ondoren Kataiden bazkaldu zuten auzotarrek.

naldian. Kataluniako taldeak "Miénteme por favor" koreografia taularatu zuen eta bertan izan zirenen ustez kalitate onekoa izan zen. Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero antolatzen duen Maiatza Dantzan ihardunaldien barruan, Arrasatera etorri ziren dantzatzera Metros taldekoak.

**Mankomunitatea eztabaidagai**

Mankomunitatearen inguruan onartu ziren puntu batzuk, eztabaidagai izan ziren ostiralean egin zen udal plenoan. HBren ustez, enplegu alorrean Udalak konpetentziak galtzea

ekarriko du Mankomunitateak INEM-kin egin duen akordioak. Akordio horren arabera, arrisku soldata Mankomunitateak gestionatuko du hemendik aurrera. EAJk, berriz, hitzarmen horrekin herriak irabazten irteno duela defendatu zuen.

Bigarren aldiz mahai-gainean geratu zen larrialdietarako udal lantaldea sortzearen asmoa. Horren ordez, Mankomunitateko Borondatezko Suhiltzaileen zerbitzuan sartzea erabaki zen. Egitamu Orokorra idazten hasteko irizpideak ere finkatu ziren. Herritarrek aurkeztu dituzten 79 iradokizunetatik 28 onartu

dira eta Egitamu Orokorra idazterakoan kontuan hartuko dira.

**Protestak eten**

Aste honetan, Udaleko langileek ez dute protesta ekintzarik egin. Gaur, ostirala, negoziotazio mahaia bilduko zuela agindu zuen Eudelek eta horregatik, ordu laurdeneko etenaldiak bertan behera uztea erabaki zuten langileek. Batzarrean sortzen denaren arabera, erabakiko da berriz ere protesta ekintzekin jarraitzea ala ez.

**EZKONTZAK**

- Norberto Mondragón Etxebarria eta Maria Rosario Gruzeta Etxebarria. Maiatzaren 5ean. Zibilez.
- Jose Antonio Berezibar Ira-suegi eta Edurne Balanzategi Osinaga. Maiatzaren 6an. Elizaz.
- Esteban Igartua Erostarbe eta Miren Josune Abarisketa Arriaran. 6an. Zibilez.
- Juan Felix Orujo eta Ane Rosa Olivenza Martín. 13an. Zibilez.

**HILDAKOAK**

- Arantza Garcia Elorza. Maiatzaren 7an. 5 urte.
- Maria del Carmen Elorza. 7an. 42 urte.
- Jon Salaberri Martinez. 10ean. 34 urte.
- Felix Barayazarra Goiriena. 10ean. 79 urte.
- Apolonia Salinas Jubera. 10ean. 87 urte.
- Alejandra Azkarretazabal Aranzibia. 11n. 85 urte.

**MARKO-JARTZEAK**  
**ALDEDI**  
Biteri, 8 • ARRASATE  
Tfnoa: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

**CE** **ERRASTI KRISTALDEGIA**  
**Plastiko eta burdinazko hodiak**  
**beirina eta kristalak**  
**akzesorioak**  
Olarte kalea, 47 beheka Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



\* Amaia Balda

## Kirola ere, euskaraz

**A**zken urteotan hainbat ahalegin egin da haur eta gazteen aisialdia, eta honen barruan kirola, euskalduntzeko. Hamalau urtez azpiko ia haur guztiak euskaraz ikasten ari direla jakinik, eskolorduz kanpoko kirol ihardueretan euskara erabiltzeko duen garrantziaz jabetuta, "Kirola Euskaraz" proiektuari ekin zitzaion orain dela hiru urte.

Hasiera batean Deba Garaiko Kirol eta Euskara Zerbitzuek kirola euskalduntzeko egitasmoa abian jarri bazuten ere, joan den urtean Deba bailara osora, Mallabia, Mendaro eta Mutrikura izan ezik, zabaldu zen.

Proiektu honen abiapuntua kirolean euskaraz duen egoera zein den aztertzea izan da. Horretarako, baila-

rako herrietan egiten diren kiroleko datuak jaso dira euskararen presentzia ezagutzeko. Aldi berean, kirol arloko euskarazko materialaren bilketa egitera jo da. Azterlanean nabaritu diren hutsuneak bi izan dira nagusi: bata entrenatzaile euskaldunak hezi beharra, eta bestea, materiala euskaraz

prestatu beharra, euskarazko kirol materialaren eskasia handia zela ikusirik.

Bestalde, kirol arloko materiala sortzeko 2 beka banatu dira dagoeneko eta beste bat plazaratu berri da. Lehenengo lanaren emaitza, "Futbol entrenatzailea" liburua hain zuzen ere, Christian Bourrel eta Maurizio Senok idatzitako "L' entraîneur de football" liburuaren itzulpena da eta Iñaki Frieria eta Iñaki Azkune izan dira liburua euskaratu dutenak. Bigarrenera, "Kirol entrenamenduaren oinarriak" berriz, IVEFeko lizentziatuak diren Ina Oiarzabalek eta Aitor Zinkunegik idatzi dute. Esan beharra dago, bi liburu hauen argitalpena eta jendeaurreko aurkezpena aurreko asteetan egin zela, beraz, laster batean gure kirol entrenatzaile eta monitoreek eskuartean edukitzea aukera izango dute.

Deba bailarako kirol eta euskara zerbitzuen elkarlanari esker, urrats sendo bat eman da gazteen eta haurren kirol mundua euskalduntzeko. Izan ere, argi ikusi da eskolan egindako lana osatu eta indartu egin behar dela eskolaz kanpoko ihardueretan. Dena den, hasi besterik ez gara egin bidea urratzen, ahalegin hauek hutsean gelditu ez daitezten, kirol entrenatzaile eta monitoreek eguneroko ihardunean euskarazko ikastaroetan bereganaturiko arauak, teknikak eta terminologia erabiltzea lortu behar baita.

.....

*"Argi ikusten da eskolan egindako lana osatu eta indartu egin behar dela eskolaz kanpoko iharduetan"*

\* EUSKARAREN HITZARMENEN TEKNIKARIA

JON ALDANONDO

## USTEAK USTE

**BADATORRELA M28a!!!**

**Batetik irten eta beste batean sartu. Betiko martxa dela dirudi. Kanpaina barruan gaude, legezko azken hamabost egunen barruan, nahiz eta dirudi aspaldi hasi zela.**

**Batzuentzat hamabost egun aspergarri izango dira, beste batzuentzat bukaezin eta hil ala bizikoak. Jendea aspertzen ari ote den ere susmatzen da; aspertu edo... piskanaka haserretzen? jendeak gero eta gehiago paso egiteak ez liguke harritu behar.**

**Gu ordea, gure ATBko leihatilatik, herri komunikabide garen honekin, udal hauteskundeetan bitarteko ezinhobea izan gaitzke; zure nahiak hurrengo lau urteetan defendatu behar dituen ezagutzeko. Hori, politikoak ongi baino hobekiago dakite. Ongi erabiltzen dute.**

**Hala ere garai hontako ohiko tirabirak izan dira...horren ondoan ez naiz eseriko, zera aitortzen ez duen bitartean... eta horrelakoak. Hemen atek denontzat irekita daude eta kamara aurrean jartzen ez denak ez ote du aukera eder bat galduko?**

**Herri Komunikabideok ere badugu gure indarra.**


**"EDERTU" ileapaindegia**



San Andres auzoa  
Tfnoa: 79 04 28


**Hilbera kafetegia**

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE




Arrasate Pasealekua 4,  
Tfnoa: 79 14 90  
ARRASATE

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62



Arrisku soldata programak ematen duen laguntza jasotzeko aukera izango da laster.

## Zortzi enplegu sustatzeko eskaria egin du Udalak

Urtero moduan, zenbat eta zein lanpostutarako subentzioa jaso nahi duten aukeratzeko garaia heldu zaie udalei eta Arrasatekoak, zortzi langabetu kontratatze eskaria egin du. Eskaria Gipuzkoako Diputazioari eta INEM-i luzatu zaie; orain dela bi urte bezala, aurten ere kontratazioak egiteko bi diru-poltsa eratu dira eta. Hala ere zaila ikusten da zortzi lanpostuetarako subentzioa jasotzea, Diputazioak murriztu egin ditu eta enplegua sustatzeko programako dirulaguntzak. Murrizketaren ondoren Arrasateri hiru lanpostutarako subentzioa egokitzu zitzaion. Edozelan ere, gehiago egiteko nahia azaldu da eta hile bukaeran jakingo da zehaz-

ki Diputaziotik eta INEM-etik zenbat kontratazioarako laguntza jasoko den. Arrasateko udalaren eskarian, lau dirulaguntza arrisku soldata programarako eskatzen dira eta beste lau, lan zehatz batzuetarako teknikariak kontratatze, galdaragain, peoi, arkitektu eta dokumentalista bana kontratatze.

Iaz hamar kontratazio egiteko aukera izan zuen Udalak eta horietako bost arrisku soldataren barruan proiekturen bat aurkeztu zutenendako gorde ziren. Hala ere, azkenean bi proiektu baino ez ziren onartu eta bi horiei joan den ostiralean amaitu zitzairen programaren laguntza. Sei hilabetetan zehar, proiektuen bideraga-

rritasuna aztertu dute eta orain merkatura "salto" egiteko ordua heldu zaie. Margi Garmendia, enplegu teknikariaren berbetan "espektatiba onak dituzte proiektuetako arduradunek eta urte amaierarako enpresa moduan eratzeko aukera izango dutela espero dute."

Arrisku-soldata programa enpresa bat sortzeko laguntza jaso nahi dutenendako pentsatuta dago. Ideia onartzen bada, proiektu bakoitzeko lagun bat kontratatzen da, eta sei hilabetez proiektuaren bideragarritasuna aztertzen da. Programa honetan parte hartzeko informazioa jaso nahi dutenek, Udaleko enplegu teknikariarengana jo dezakete.

### Gazte taldeei dirulaguntzak

Herriko hamabi gazte talderi emango die laguntza Arrasateko Gazte Bulegoak. Uribarriko Gazte Taldeak, Corazón De Encinako gazte taldeak, Orkatz Skaut taldeak, Gizaizpi Alai taldeak, San Frantzisko parroki taldeak, AEDko Gazte Mobidak, Besaideko Gazte Ekintzak, Al Andalus Gazte Sailak, Galtzagorri Gazte Taldeak, Zankataklak hankapalo taldeak eta Arrasateko Talde Antimilitaristak jasoko dute dirulaguntza. Arrasateko Gaztetxeko taldeari oraingoz ez zaio dirulaguntzarik eman, ekintza eta egitaraueri buruzko informazioa berriz aurkeztea eskatu zaio-eta.


### Alde zaharreko 3. fasea

Alde zaharra zahar-berritzeko hirugarren fasea hasiko da laster. Maalako Errebalako 3, 5 eta 7 zenbakidun etxebizitzak eta Iturriotz Kaleko 3 eta 5 zenbakidunak berrituko dira fase horretan.

### Eztandak

San Josepeko harrobian azkenaldian egin diren eztrandak, onartutako neurrien barruan egin dira. Azken bi eztrandak Eusko Jaurlaritzak neurtu ditu eta ezarritako neurrien barruan egin direla frogatu dute. Inguruan bizi diren bizilagunek eskatu zuten eztrandak neurketa egitea.

Elektroinjekzio  
Zerbitzua



## ARRASATE KONPONKETAK

Zaldisper kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41  
ARRASATE

*ESLU*  
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88  
ARRASATE



MCCko zuzendari denak egon ziren prentsaurrekoan.

## Burtsan inbertitzen hasiko da MCCa ekaina aldera

12.000 milioi pezetako balioa izango du MCCak aurtengo bigarren sehilabetekoan egingo duen lehen burtsa inbertsioan, baldin eta ordurako Madrilan eta Bilbon kotizatzen ari den sozietateren batekin akordioa lortzen badu. Horixe izan zen MCCko urteroko prentsaurrekoan Javier Mongelos presidenteak ezagutzera eman zuen berririk aipagarriena. Horretaz gain, aurtengo urte bukarerari begira eta lehen hiruhilabeteko datuak aztertu ondoren, MCC-ak 1.400 lanpostu berri sortu, %12ko irabaziak izan, salmentak %20an gehitu eta esportazioetan %26ko igo-

era izatea espero du.

Urte honetarako prebisioak bezala, iazko balantzea eskaini zen MCCko prentsaurrekoan eta aipagarria da taldeak orokorrean 33.740 milioi pezeta irabazi zituela, aurreko urtean baino %17a gehiago. MCCko arlo bakoitzeko arduradunek hitzegin zuten eta bere arloari buruzko xehetasunak ematerakoan, urtearen oparotasunean eta etorkizun laburrerako seinale onetan bat etorri ziren, guztira 38.000 milioi irabaztea espero dute eta, esan bezala %12a gehiago.

## 80 aparkaleku autoendako

Autoendako 80 aparkaleku egokituko ditu Udalak Zaldispen, Zerrajerako lursailetan. Lursail horiek urte baterako utzi dira Udalaren esku eta inguru horretan aparkalekuen beharra dagoenez, toki hori autoendako egokitzera erabaki du Udalak. Arrasateko udalak 791.000 pezetako aurrekontua finkatu du lursail hori egokitzeko eta diru hori materiala erosteko erabiliko da. Lana zeinek egingo duen, berriz, oraindik erabaki barik dago.

Aparkaleku berriak Anbulategi ondoan egongo dira, eskumaldean. Era horretan Eskualde Ospitaleri ere toki hori ondo etorriko zaio, lehen Eskualdeko Ospitaleko aparkalekua zegoen tokian, eraikin berria egiten ari direta.

Ez da ezagutzen Udalak zenbat denboraz erabili ahal izango duen toki hori autoendako baina Egitamu Orokorrean, hor berdegunea egiteko nahia jasotzen da.

Lursail hori UCEM Zerrajera S.A.L-ak utzi du, Udalarari zor dion plusbalia ez ordaintzearen truke.



### ESKORIATZako IRAKASLE ESKOLAK

aukera hauek eskaintzen dizkizu:

- Magisteritzako titulu berriak.
- Hainbat arlo ezagutzea: haur hezkuntza, ingelesa, hezkuntza musikala, teknologia berriak, euskara...
- Esparru ezberdinetan lana egin ahal izateko formakuntza egokia: eskolan, euskalduntze munduan, iharduera soziokulturaletan...

Informazioa:  
IRAKASLE ESKOLA  
ESKORIATZA  
Tfnoa: (943) 71 41 57

1995-6 ikasturterako  
aurreinskripzio-epena  
zabalik dago




Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa

ARETXABALETA


Tfnoa: (943) 79 24 58




**Angel, Cándido, Pedro eta Luis** apirilaren 30ean bizikleta hartu eta Zamorako bidean jarri ziren. Goizeko 7ak laurden gutxitan Arrasatetik irten

eta Torquemadaraino elkarrekin joan ziren. Torquemadan Candidok Palentziako bidea hartu zuen eta beste hirurak arratsaldeko 7ak eta laurde-

netan heldu ziren Zamorako Morales de Torora. Primeran egin zuten bidaia txirrindulari amateur hauek. Zorionak!



**San Juanetako Tanborren** hotsak dagoeneko entzuten hasi dira. Astean hiru bider umez gainezka egoten da Kalistroa eta musikaren erritmoa jarraitu guran, hortxe ibiltzen dira makilak eskuan dituztela tanborra jotzen.



**Musakolako gazte txokoko gazteek malabar pilotak egiteko tailerra antolatu zuten ostiralean. Gazte askok hartu**

zuen parte eta pilotak egiteaz gain, jolasteko aukera ere izan zuten. Pilotak egin ondoren merienda. Ez dago gehiago eskatzerik!

**Plus Ultra**  
taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 57

**TXOKO**  
**TABERNA**

*€ure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak*

**Txitxinpe**

Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

## IZEN PROPIOAK

- **Jose Maria Odriozola** 47 urte arrasatearra izango da AUKEAko Zuzendaritza batzordeko kirol instalazioetako erabiltzaileen ordezkari berria.
- **Libe Olabarrieta** 24 urteko arrasatearrak Arrasateko gida egin du. Euskara batzordearen proposamenez ARKO, AEDk eta Txatxilipurdik diseinatutako eta tajzututako gida da. Geografia eta historia ikasi du Libek.
- **Jose Galan** 43 urte arrasatearra da Duatholoneko Gipuzkoako txapel-dun berria. Eibar Herriko IV. frogan lortu du tituloa. Maitzaren 21an Tolosako frogan hartuko du parte eta Europako Duathlon txapelketarako izango da baliogarrira.



**Jon, Peio, Roman eta Juan Luis, mendia egitera Nafarroako Quinto Realera joan ziren eta begira nor aurki-**

**tu zuten, Alfredo Landa aktorea. Irri-fartsu bere alboan jarri eta historiarako argazkia egin zuten.**



Lehen saskibaloit taldea 1969an sortu zen Arrasaten. 26 urte pasa ondoren Jon Basurkori omenaldia egiteko berriro elkartu ziren jokalaririk ohiak. Ite gutxiagorekin eta pisu gehiagorekin majo majo

agertzen dira argazkian. Argazki bietan kokapen bera dute jokalariek.

Goian: **Jon Basurko, Jabi Berezibar, Juanjo Zabarte, Felix Aldazabal, Eugenio Etxebarria.**



Makurtuta: **Enrike Sorzabalbere** (ez dago aurtengo argazkian konpromezua izan zuelako), **Jose Angel Iborra, Txomin Landaluze, Iñaki Garai, Juan Altuna.**

# RKUZ




## altzariak

altzariak • diseinua • apainketa

Araba Etorbidea, 20  
Tfnoa. / Faxe: 79 23 51

## sukalde integrala




FAGOR 

Mitarte, 3  
Tfnoa. / Faxe: 77 04 55



## elektragailuak

telebista • bideoa • soinua

**expert** 

banatzaile ofiziala

Asuncion, 1 Tfnoa. / Faxe: 77 10 97



# Aretxabaleta



# Erantzukizuna



## Erantzukizuneko konpromezua Gipuzkoarekin.

EAk ekintza konpromezu bat eta diten ardura politikoaren jabe diren hautagaiak Gipuzkoa guztiko hiritarren zerbitzura jartzen dizkigute, zeintzuk jokabide zuzen eta garden bat erakutsi duten, etorkizun aurrerakoi bat lortzeko lanean jardun eta mota guztitako korrupzio eta botore gehiegikeriak salatzen dituzten.



## Gure ekintza konpromezua

- 1 "Herrigintza arduratsu" berri bat eragin, hautagaien zuzentasunean, gastuaren zuzentasunean, politika publikoen eraginkortasunean eta gobernu ekintzen gardentasunean oinarritua.
- 2 Maila guztietako esku-hartzeak indartu eta garatu foru aldundi eta gizartearen arteko harremanak areagotzeko. Diputazioa gipuzkoarron udaletxean bihurtu nahi dugu.
- 3 Tolerantzia eta elkar errespetoan oinarritutako kultura gure lurraldean sustatu, bereziki gazteenen artean eragiteko "pedagogia tailerren" sormenaren bidez.
- 4 Diputazioa dezentralizatu eta berregituratu, gune politiko-administratiboaren arteko subsidiaritatea eta arrazionalitatea sustatu.
- 5 Azpiegitura produktiboari lehentasuna eman, errepideen egitasmo orokorra amaituz, hiri barianteen egitasmo berezi bat garatuz eta etorkizunerako azpiegituren egitasmo bat zehaztuz.
- 6 Kanpo inbertsioaren ekarrian, berregokitze fiskalan eta ideien politika baten garapenean, ez monetarista soilean, eragingo dituen finantza eta fiskal neurri berrien ezarpena.
- 7 Giza ongizate politiken berrantolaketa, sektorializazio zuzen bat eta elkartratzea indartuz.
- 8 Gipuzkoa 2000 egitasmoaren berreskuratzea eta eguneratzea.
- 9 "Gazteriaren legealdia" ahalbidetu (partaidetza, enplegua, entresalaritza, insumisioaren deszigorpena lortzeko urratsak eta abar sustatuz).

Ezkerretik eskumara eta goitik behera: Julian Unanue, Beatriz Otaegi, Jose Luis Telleria, Pello Gonzalez, Amaia Nabarro, Mikel Zabala, Begoña L. Tolosa, Iñaki Alkiza, Imanol Murua, Yon Goikoetxea, Itziar M. Apellaniz, Roberto L. Etxezarreta.





**ARRASATEK GALDUTAKO BIZITASUNA BERRESKURATZEKO BEHARRA DAUKA.  
UDALETXEAN ALDAKETA BEHARREZKOA DA.  
ZUEN PARTAIDETZAZ ETA GURE KONPROMEZUAZ EGI BIHUR GENEZAKE.**

Kalitate eta baldintza berdineko hezkuntza bultzatuko dugu, gaitasun handiagoko eta erizpide soko nagoko gizartea eraikitzea erreztu dezan. Etorkizunaren alde egiteak pertsonengan inbertitzea dakar, garapen ekonomikorako inizatibak bultzatuko ditugu gure gazteentzako lanpostuak sortzea beharrezkoa delako.

Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentziari etekin handiagoa aterako diogu, Enpresa Ekimenerako

Zentrua eta Enpresa Berritzaileen Zentruak erai-kiko ditugu, industrialdea bat sortzea bultzatuko dugu, enpresa berriak sortzea ahalmentzeaz gain ongizate eta giza bakerako aberastasuna ekartzeko gaitasundun ekintzak sor daitezen.

Emakumeek berdintasuna lortzearen aldeko inziati-bak bultzatuko ditugu. Lanean eta gizartean integrazio osoa bilatu nahi dugu.

Euskeraren erabileraren normalizazioaren alde egingo dugu politika positiboetan eta integrazioan oinarrituz.

EAJ-PNV alkate eta talde batekin, Udala arrasatear guztien zerbitzura egon dadin lortuko dugu, eta ez batzuren zerbitzura bakarrik.

Plan Orokorra burutuko dugu, herriaren diseinu egoki bat eta Arrasateko garapen ekonomikoa bultzatuko duten azpiegiturak ahalbideratuko duena.

Gutxiengo bizi kalitatea lortu eta ezberdintasunak ekiditzeko giza-sare baten sorrera erraztuko dugu.

Gaztediaren erabilera geldiarazteko, herritar zein elkarteei kirola eta aisialdia osasuntsua eta originala izan dadin beharrezko azpiegiturak jarriko dizkiegu.

Ingurugiroa berreskuratu eta zaintzeko, herritarrak horren garrantziaz jabetu daitezen, behar diren neurriak hartuko ditugu.



**“Gure herriaren espiritu  
bultzatzailea berreskuratzearen alde”**

**Jose Mari Loiti**



**Eman Botoa**  **EAJ  
PNV**  
**Esperientzia eta Etorkizuna**

Futbito 94-95

Txapelketa

ZALDIBAR

Babesleak: JMA, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



## Zaldibar final-laurdenei begira dagoeneko


Partidu bakarra falta da hirugarren fasea bukatzeko eta talde batzuk sailkatu dira dagoeneko. A taldean Fosforos dago sailkatuta, hurrengo postua Argi Ibili eta Los herediasen artean erabakiko da. Talde biek elkarren kontra jokatu dute eta berdinketa nagusituko balitz, Argi Ibilik aurrera egingo luke. B multzoan hiru talde daude bi posturako. Cerveceria Leintzek 4 puntu ditu, Trikiti eta Irati STSk 2. Iratik Cerveceria Leintzen kontra jokatu behar du

eta Trikitik Orlandoren kontra. Trikiti eta Iratik irabaziaz gero hirurak berdinduta geratuko lirateke eta Gol-averageak erabakiko luke. D taldean Suministros Ugartek lortu du final-laurdenetako txartela, lehia Zuloak eta Sokoakoen artean egongo da. Zuloak gutxienez berdinketa lortu behar du sailkatzeko. E taldean AC Surcos 4 punturekin barruan dago. Adelaida Haizea, Totem eta Perrahotsarentzat erabakiorra izango da azken jardunaldia.

**HIES  
EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118

**UGARTE**

Industri  
hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00  
Telefax: 793412

# Hirugarren fasea

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
FOSFOROS	2	2	0	0	10	3	<b>4</b>
ARGI IBILI	2	1	0	1	8	7	<b>2</b>
LOS HEREDIA	2	1	0	1	6	7	<b>2</b>
MIKELOS	2	0	0	2	4	11	<b>0</b>

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
CER. LEINTZ	2	2	0	0	6	2	<b>4</b>
TRIKITI	2	1	0	1	8	9	<b>2</b>
IRATI STS	2	1	0	1	11	10	<b>2</b>
ORLANDO PIRATAS	2	0	0	2	4	8	<b>0</b>

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUM. UGARTE	2	2	0	0	11	6	<b>4</b>
ZULOAK	2	1	1	0	9	8	<b>3</b>
SOKOAKOAK	2	0	1	1	7	8	<b>1</b>
EQUUS BTR	2	0	0	2	7	12	<b>0</b>

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
AC SURCOS	2	2	0	0	6	2	<b>4</b>
ADELAIDA HAIZEA	2	1	0	1	4	4	<b>2</b>
TOTEM	2	0	1	1	6	7	<b>1</b>
PERRAHOTSA	2	0	1	1	5	8	<b>1</b>

## Uribe auzoako Futbito Txapelketa

### A Taldea

Leya .....	13
Ex Lete .....	12
Berza Mutante .....	12
Munar Txiki .....	11
A Las 9 No .....	10
La Banda .....	7
Borroch 'N Roll .....	5
Energizer .....	4
DKB .....	3
CD Arko .....	2
Holokaustro Kanibal .	1

### B taldea

Arrasate Kirolak .....	14
Jotakabau .....	13
tronkoteak .....	12
BlackBurn .....	9
Eztanda egin arte .....	8
Baneuko .....	7
Trotabares .....	6
Los Intocables .....	5
pier Nodoyuna .....	4
Amaral .....	2
Orkatx .....	0

### D Taldea

Uglys Txinato .....	13
Equus BTR .....	12
Los Dimy .....	10
Balon Rojo .....	8
No Comment .....	8
Arrasate Zoo .....	8
Ke Oxtias .....	7
Gazte Txokoa .....	6
Astoen Bila .....	3
Garajauke .....	1
Eman Bidea .....	0

### E Taldea

Kamasutra .....	12
The Barrio .....	12
Hirei .....	11
Dribling .....	11
Borroch 'n roll .....	10
Koka Juniors .....	9
Ganbelas .....	7
Ex. Forue .....	4
Lo + X .....	2
Telleria Auto eskola ..	2
kurtze Txiki .....	0

### F Taldea

Salenco y konpañia	15
Lautherbrunnen .....	13
Bodega Anboto .....	11
Gallinero .....	9
Txeyenex .....	7
Berango sukaldeak ..	6
Corazon de Encina ..	6
Elisabeth .....	5
sukar .....	4
Iluna Taberna .....	4
Euskal Suporters .....	2

## Nesken Txapelketa

	Partidua	Alde	Kontra	Puntuak
Txakolintxintxau	5	35	6	10
Las Mels	5	36	10	10
Izenbakuak	4	19	10	6
joixon Bertan	5	22	22	5
Zure Atzetik	5	7	27	5
Orkatx	4	21	17	4
Zepasstandon	4	15	15	4
B.G.	5	7	27	0
Irekilas	4	5	21	0
Karpe Diem	3	1	14	-8

**Zaldibarren lau partidu interesgarri jokatuko dira. Zapatuan goizeko 10etan Zuloa eta Suministros Ugarte izango ditugu aurrez aurre. 11etan Equus BTR eta Sokoakoak. 12etan Irati STS eta Cerveceria Leintz. Domekan, oster, Argi ibili eta Los Herediasen arteko partidua bizia bezain lehiatsua izan daiteke.**



**BELARRIRA**

◆ **Lesioa:** Trikiti taldeko Rafa Etxeandia lesionatu egin zen domekan. Irati STSk eta Trikitik elkarren kontra jokatu zuten eta zoritxarreko jokaldi batean peronea hautsi zuen Rafak.

◆ **Golak:** Zaldibarren 62 gol sartu dira azken jardunaldi honetan. D taldea goleatzaileena izan da 20 golekin, gol gutxien B taldean sartu dira 13 baino ez. Uribe Auzoa txapelketan, berriz, 212 gol sartu dituzte 8. jardunaldian.

◆ **Era guztietako emaitzak:** Fosforosek astindu galanta eman zion Argi Ibiliri 6 eta 1 irabaziz. Suministros Ugarte eta Sokoakoaren arteko neurketa bizia izan zen azkenera arte baina Suministrosek 5 eta 4 irabazi zuten. Jardunaldian berdinketa bakarra izan da Perrahotsak eta Totemek 5na berdindu zuten.

**URIBE AUZOAKO HURRENGOAK**

**Larunbata 20**

**Iturripe A**

- 10.00 Leya - Munar Txiki
- 11.00 Kamasutra - Lo + X
- 12.00 Blacburn - Pier Nodoyuna
- 13.00 The Barrio - Dribling
- 14.00 Balon Rojo - Garajauke
- 15.00 Exc. Lete - CD Arko
- 16.00 Jotakabau - Trotabares
- 17.00 Astoen Bila - Equs BTR
- 18.00 Salenco y Konpañia - Iluna Taberna
- 19.00 Holokaustro Kanibal - A Las 9 No

**Iturripe B**

- 12.00 Telleria Auto eskola - Ganbelas
- 13.00 Txeyenex - Elisabeth
- 14.00 Eman Bidea - No Comment
- 15.00 Extintors Foruen - Hirei
- 16.00 Baneuko - los Intocables
- 17.00 La Banda - DKB
- 18.00 Gallinero - Bodega Anboto
- 19.00 Berza Mutante - Energizer

**Igandea 21**

**Iturripe A**

- 11.00 Orkatz - Amaral
- 12.00 Berango Sukaldeak - Sukar
- 13.00 Ke Oxtias - Arrasate Zoo

**Iturripe B**

- 11.00 Eztanda egin arte - tronkoteak
- 12.00 Gazte Txokoa - Los Dimy
- 13.00 Lautherbrunnen - Euskal Suporters

**NESKEN HURRENGOAK**


- 9.00 Karpe Diem - Joixon Bertan
- 10.00 Izenbakuak - Txakolintxintxau
- 11.00 Orkatz - Ireklas
- 12.00 Zepasstandon - Zure Atzetik
- 13.00 B.G - Las Mels



**Final-laurdenak gainean**

Hirugarren fasea bukatuta final-laurdenetara helduko da Zaldibar txapelketa. Fasea partidu bakarrera jokatu da eta berdinketaz bukatzen bada, 10 minutuko luzapena jokatu dute; orduan ere ez balitz neurketa erabakiko, penaltietatik irtengo litzateke talde irabazlea. Final laurdenen ondoren, final erdiak etorriko dira eta azkenik finala.

Final-laurdetako taldeen egitura:



**ZALDIBARKO EMAITZAK**

**A Taldea**

Argi Ibili 1 - Fosforos 6  
Los Heredia 4 - Mikelos 3

**B Taldea**

Irati STS 5 - Trikiti 6  
Cer. Leintz 2 - Orl. Piratas 0

**D Taldea**

Zuloak 6 - Equs BTR 5  
Sum. Ugarte 5 - Sokoakoak 4

**E Taldea**

Adelaida Haizea 2 - AC Surcos 3  
Perrahotsa 5 - Totem 5

**ASTEBURU HONETAN ZALDIBARREN**



**Larunbata 20**

**Zaldibar**

- 10.00 Zuloak - Sum. Ugarte
- 11.00 Equs BTR - Sokoakoak
- 12.00 Irati STS - Cer, Leintz
- 17.00 Fosforos - Mikelos

**Igandea 21**

**Zaldibar**

- 10.00 Adelaida haizea - Perrahotsa
- 11.00 Argi ibili - Los Heredia
- 12.00 AC Surcos - Totem
- 13.00 Trikiti - Orlando Piratas

# Gatzik gabeko denboraldia hirugarren mailako Mondrarentzat

**3** mailako Mondrak denboraldiko azken neurketa jokatu du Elgoibarren kontra zapatuan arratsaldeko 5etan. Tramite hutsezko partidua izango da talde biek ez dute ezer jokuan eta. Aurtengo denboraldia oso irregularra izan da Nedza Zivojevicen mutilentzat. Denboraldia hasi aurretik, jakinmini handia zegoen. Entrenatzaile bosniarrak Udara osoan entrenatzen izan zituen jokalariek eta bazirudien taldeari itxura berria emango ziola, baina aldeketa hori ez da igeri eta azken arte larri eta estu ibili dira Mondrako jokalariek. Egia da lesioak eta txartelak eragin handia izan dutela, baina era berean ezin da ukatu jokalarien eta entrenatzaileen artean ez ulertzea egon dela.

Irailaren 4ean eman zioten hasiera 94-95 denboraldiari eta oker samar hasi zutela esan behar, lehenengo hiru partiduetan ezin izan zuten garaipenik lortu.

## Lehen buelta

Lehen bueltan 19 partidu jokatu zituen Mondrak. Balmaseda, Ondarru, Zalla, Amorebieta eta Alavesen kontrako norgehiagokak berdindu egin zituen. Sei galdu; Arenas, Hernani, Getxo, Durango, Gasteizko Aurrera eta Touringekin. Irabazi zor-



Jokalariendako zapatukoa azken neurketa izango da.

tz: Tolosa, Aloñamendi, Santurtzi, Zamudio, Basconia, Mungia, Urola eta Elgoibar. Golei dagokionez, 22 sartu zituen eta 21 jaso. Etxeko taldeak gol gehien Basconia eta Urolaren kontra sartu zituen, 4 partidu bakoitzean eta Arenasen aurka jipoi handiena jaso, 4 eta 0 galduz.

## Bigarren buelta

Bigarren buelta 18 partidu jokatu ondoren, bai joku aldetik eta baita emaitzei dagokionez ere, lehena baino txarragoa izan dela esan daiteke. Bost neurketa bakarrik irabazi dituzte Mondrako jokalariek: Arenas, Balmaseda, Zalla, Mungia eta Tou-

ringen kontra lortu dute garaipena. Berdinu lau; Tolosa, Aloñamendi, Aurrera eta Amorebietarekin eta gaitzetzeko bederatzia galdu. Lortutako golei errepaso eman, 14 sartu dituzte eta 20 jaso. Balantze txarra Play Offean sartzeko helburua zuen taldearentzat.

## Golegileak

Juan Luis Aranburuzabala 10 golekin izan da taldeko golegilea. Iker Balzategik 9 gol lortu ditu, Kepa Azkuek 7, Agustín Callejak eta Ruben Ruedak hiruna gol, Luis Mari Madinabeitiak 2 eta Gorka Otxoak bakarra. Gol gehien jokolari hauek lortu badituzte ere, tal-

deko jokalaria onena Josu Urzelai atezaina izan da. Maila oneko atezaina dela erakutsi du behin eta berriz eta jokalaria erabakiorra bihurtu da taldearentzat zenbait partidutan.

## Datorren denboraldian

Nedza Zivojevic entrenatzaileari beste urte baterako berritu diote kontratua; beraz, datorren denboraldian ere berak gidatuko du 3. mailako taldea Jose Luis sexto bigarren entrenatzailearen laguntzaz. Tekniko mailan ez dira aldaketarik izango baina jokalarien artean egon daitezke eta egongo dira. Oraindik dena dela, zurrumurruak baino ez dira zabaldu.

## AVICOLA IRAIN

**Arraultza freskoen banaketa - Arraultza pasteurizatuak-Urdaitegia**


Tfnoa (943) 72 43 90 - 76 63 03 Faxa (943) 72 43 90  
Ezkio Itsaso - Antzuola

# Lehen maila galtzeko arrisku bizian futbitoan

Arrasateko futbito taldeak Cafeteria Gomar taldearen kontra galdu egin zuen joan zen domekan eta lehen mailari eustea gero eta zailagoa du. Gomar taldea aurkari zuzena zen eta derrigorrez irabazi behar zitzaion denboraldiko helburua lortzeko, hau da, lehen mailan jarraitzea. Arrasateko taldeak 8 eta 5 galdu zuenez, Narcisoren mutilei beltz jarri zaie etorkizuna.

Datorren larunbatean sailkapenean 3. dagoen Gaztelueta

taldearen kontra jokatuko dute Iturripen arratsaldeko 6etan. Maiatzaren 27an, Castro urdialdes izango dute arerioa, 4. sailkatua eta ekainaren 3an Erandiotarra taldearen bisita jasoko dute Iturripen. Hiru neurketa hauek irabaziaz gero eta Gomarrek bateren bat galduka, etxeko taldeak oraindik aukera izango luke. Gomarrek falta zaizkion neurketa guztiak irabazten baditu, arrasatearren itxaropen guztiak bertan behera geratuko lirateke.



Narciso entrenatzailea.

Lehen mailan 16 talde daude eta lau jeitsi egingo dira. Arrasate 13. dago 18 pun-

turekin. Jokatutako 27 partidetatik zazpi irabazi ditu, lau berdindu eta 16 galdu. Arrasatearrek 87 gol sartu zituzten denboraldian eta 118 jaso.

Bestalde, Arabako territorialekoentzat amaitu dira neurketak. Gora behera handiko denboraldia izanarren, ez dute jeisteko larritasunik izan eta 12. tokian bukatu dute 20 punturekin. 29 partidetatik 9 irabazi dituzte, bi berdindu eta 18 galdu. 141 gol sartu dituzte guztira eta 169 jaso.

## HURRENGO NEURKETAK

### Futbola

3. maila: Mondra 3 - Touring 1  
2. Erregionala: Urki 2- Mondra 4.  
Emakumeak: Urretxu 2- Mondra 4  
Jub Ohorezko liga: Mondra 1- Herrera 2

Lehen kadeteak: Aurrera 3 - Arrasate 2

2. kadeteak: Irun 1 - Arrasate 5  
Infantilak: Aloñamendi 1- Arrasate 2

### Hurrengoak:

3. maila: Elgoibar - Mondra. Larunbata. 5etan.

2. Erregionala: Plai-handi - Mondra. Igandea. 17.45etan.

Emakumeak: Mondra - Sondika.

Domeka. 11.30etan. Atxabalpen. Jub Ohorezko Liga: Elgoibar - Mondra. Larunbata. 3etan.  
2. Kadeteak: Arrasate - Oiartzun. Larunbata. 5etan. Atxabalpen. Infantilak: Arrasate - Ordizia. Larunbata. 12.30etan. Atxabalpe.

### Eskubaloia

Lehen maila: Arrasate 25- Zarautz 26  
Lehen maila: Arrasate 17 - Arrate 25..

Lehen territoriala: Elizaran 26 - Arrasate 16

Kadeteak: Aloñamendi 26- Arrasate 8

### Hurrengoak:

Lehen maila: Arrasate - Ereintza. Larunbata. 7etan. Iturripen.  
Lehen territoriala: Arrasate - Ordizia. Larunbata. 4etan. Iturripen.

### Futbitoa

Lehen maila: Gomar 8 - Arrasate 5  
Hurrengoak:  
Lehen maila: Arrasate - Gaztelueta. Larunbata. 6etan. Iturripen.

### Rugby-a

Emakumeak: Arrasate 0 - Elorrio 72  
Jubenilak: ( Ondartzako Rugby txapelketa),  
Arrasate 20 Atletico bera bera 0

Arrasate 0 Ordizia 20  
Arrasate 5 Eibar 10

### Hurrengoak:

Emakumeak: Kakarraldo - Arrasate. Larunbata

### Pilota

Herri artekoa: Zaldibia - Arrasate. Infantil ( 18 - 1), jubenilak ( 22 - 9) eta nagusiak ( 17 - 22)

Herri arteko herramientan: Arrasate - Anoeta. Paletan ( 35 - 34). Pala motza ( 40 - 35)

### Hurrengoak:

Deba artoa  
Arrasate - Plentzia. Larunbata. 11etan. Iturripen.

# EUSKAL MUSIKAREN BILDUMA

- Maiatzak 20 larunbata
- Maiatzak 24 asteazkena
- Maiatzak 27 larunbata
- Maiatzak 31 asteazkena
- Ekainak 3 larunbata
- Ekainak 7 asteazkena
- Ekainak 10 larunbata
- Ekainak 14 asteazkena
- Ekainak 17 larunbata
- Ekainak 21 asteazkena

- Oskorri**  
**B. Lertxundi**  
**Mikel Laboa**  
**Itoiz**  
**Sorotan Bele**  
**Hertzainak**  
**Zarama**  
**Lin Ton Taun**  
**Su Ta Gar**  
**Negu Gorriak**



Asteazken eta larunbatero  
**Egunkaria** rekin



● *Pako Iriondo*

# Euskal mendizaleen burua

**Pako Iriondo elgoibartarra, azken hamar urteotan Euskal Herriko Mendi Federakuntzako lehendakari karguan dago. "Mendian ibiltzeko, bakoitzak duen indarra ezagutzea oinarrikoa" dela dio behin baino gehiagotan.**

- Noiz piztu zitzaizun mendizaleetasuna?

- Gaztetan, mutiko bat nintzenean. 1941. urte inguruan hasi nintzen mendira irteten, eta garai hartan aukera handirik ez zegoen arren, poliki poliki jarraituz joan ginen, gaur egun gauden tokira iritsi arteraino.

- Euskal Mendi Federakuntzako ordezkari zarako saldua nola eman zenuen?

- Herriko mendi taldean hasi nintzen lehenik, denbora pasa eta 1978an Martxa eta Kanpamenduen delegatua izendatu ninduten. Beranduago, 1981ean, Iruñian burututako asanblada batean, bost hautagaien artean ni aukeratu ninduten lehendakari.

- Nola gogoratzen duzu Pirineoetara joan zinen lehen aldia?

- Pirineoetara joatea amets

bat izan zen niretako, zoragarria!

- Zeintzu dira zuretzat benetako mendizaleak?


- Niretzat barru-barruan mendizale sentitzen direnak dira mendizaleak. Jakina, horretaz gain ikasi egin behar da mendian ibiltzen eta zaleatasuna eduki behar da, zaleatasun handiko kirola da eta.

- Mendian zer da arriskuatsuago igotzea ala jeistea?

- Jeistea nire ustez. Mendian gertatzen diren istripu gehienak elurraren ondorioz etortzen dira. Elurra biguna dagoenean edo izoztuta egoten delako irrist egiteko arriskua sortzen da. Abiatu baino lehen apur bat pentsatu egin behar da, eta mendia zein egoeratan dagoen ikusi. Horretaz gain, norberaren indarrak neurtu behar dira. Gailurra egiten denean indarrak eta motibazioak behera egiten du eta garrantzitsua da aldapa jeisterakoan guzti hori kontuan hartzea.

- Tamalez, mendi istripuak notizia izan dira aurten.

- Bai hala da, baina asteburuetan Pirineoetara zenbat jende joaten den ere kontuan hartzekoa da. Orain dela berrogei urte jende esperientzia-



duna bakarrik joaten zen Pirineoetara. Gaur, berriz, askoz ere jende gehiago joaten da eta ondorioz istripu gehiago izaten da. Euskal mendizaleek oso gertu dituzte Pirineoak eta bertara joaten diren mendizaleen artean denetarik dago. Batzuk material ona eramaten dute eta mendia ezagutzen dute baina beste mendizale batzuen prestakuntza ez da batere ona izaten.

- Publizitatearen eraginez, askotan badirudi material ona edukitzea baino ez dela behar mendira joateko.

- Material ona edukitzeak indarra ematen dio mendizale askori eta horrek behar ez duten tokietara sartzera bultzatzen ditu. Ekipamendua

garrantzitsua da baina, norberak gai ote den ikusi behar da. Gainera, mendia ere ezagutzea komeni da. Neguan eta udan, adibidez, bide desberdinak hartu behar dira.

- Mendizaleen artean bada-go kompetentziarik?

- Apur bat bai. Batzuk Himalayara joaten dira lehenago Alpeetan edo Pirineoetan egon barik. Pirineoak ondo ezagutu barik ere Mont Blanc-era joaten direnak badira eta hor egon ondoren izugarrizko mendizaleak direla uste dute. Asko dira, berriz, Alpeetan edo Andesetan benetan eskalada politak egiten dutenak baina Himalayara joaten ez direnak. Denetarik dago.

● **"Material ona edukitzeak indarra ematen dio mendizale askori eta horrek behar ez duten tokietara sartzera bultzatzen ditu".**

# Eguneroko berrien bila

Maidar Egües

**Ez dira Manu Leguineche eta Arturo Perez Reverte gisa ibiltzen, baina kazetariak dira eta hauei ere "notiziarren atzetik" ibili behar izatea suertatzen zaie batzuetan. Arrasateko berriemalerei buruz ari gara, egunero erosten den egunkarian herrian gertatutakoari buruz irakurtzen diren zutabe eta titularren egileei buruz hain zuzen. Kalean zehar koaderno eta argazki kamararekin beti presaka ikusten ditugun horiek dira herriko korrespontsalak, albiste gertatzen den tokira lehenengo heltzen direnak, edo behintzat, hori egitea saiatzen direnak.**

"El Correo"ko Juan Luis Azkarate, "Egin"eko Itxaro Artola, "El Diario Vasco"ko Kepa Oliden eta "El Mundo"ko Urdin Elorza dira Arrasateko korrespontsalak. Arrasateri buruz zer edo zer idazteko beti dagoela diote guztiek, Arrasateko dirudienez, egunero idazteko lain ematen du eta. Dena dela, kazetarien lanak daukan xarma berezi hori ez galtzearen, kazetari guztiak, eskura heltzen zaizkien sobreetako informazioa baino, nahiago

izaten dute eurak aurkitu eta jorratutako albisteak idaztea. Honek ez du esan nahi berriemalerek ikerkuntza kazetari-tza egiten dutenik, guztiek aitortzen dute Arrasateko horretarako beste ez duela ematen eta.


## Udaletxea: informazio-iturri aberatsena

Kronista guztien ustez, Udaletxea da informazio-iturri aberatsena. "Udaletxeari buruz beti dago zer idatzi, hauteskundeak direla eta, akordioak direla eta, plenetan eta batzarretan hartzen diren erabakiak direla eta, aurrekontuak direla eta... beti dago zer bait" dio Egin-eko korrespontsalak, Itxaro Artolak. Gainera, kazetariei euren lanean laguntzeko orduan Arrasateko udala ondo portatzen dela azpimarratzen du Juan Luis Azkaratek, "El Correo"ko korrespontsalak: "Arrasateko Udalarekin harreman nahiko onak ditugu, ondo portatzen dira eta informazioa luzatzeko orduan ez dute eragozpen handirik jartzen. Gainera, beti izaten da Udaletxeko norbaitekin harreman berezia, zinegotzi edo eta langile arruntekin...".

Kepa Olidenez, El Diario Vasco-koak, zera dio: "Udaletxea eta Mankomunitatea dira informazio gehien sortzen duten erakundeak, baina udaletxeak komunikabi-deentzako kanalik ez due-

nez, norbera arduratu behar da informazioa lortzeaz eta ezinbestekoak dira norberaren informazio-iturri pertsonalak. Argi dago kazetari baten dohai bakarra ez dela bakarrik ondo idaztea; ezinbestekoa da kontaktu zerrenda garrantzitsu bat edukitzea, telefono zenbaki asko". Baina albisterik politenak udaletxetik kanpo sortutakoak izaten direla aipatzen dute guztiek. Eta hor izaten dute korrespontsalek kaze-

tarien lanak daukan xarma hori erakusteko aukera, "pistaren atzetik" ibili behar izateak daukana aprobetxatzeko aukera hain zuzen. Baina xarma duen albiste oro ez da askotan eskura egonten izaten eta horrelakoetan ikusten da norberaren harremanen garrantzia. "Albiste politikak eta interesgarriak hor egoten dira, aidean. Inork ez badizu abisatzen zu ez zara enteratzen; beraz, leku askotara




## Urdin Elorza

• **Korrespontsal izatearen alde txarra?** Bilbon ikasten ari naizenez, han bizi naizela eta ezin naizela kontzentratu hemen gertatzen diren gauzetan.

• **Idatzitako artikuluen artean gogokoena?** Azken agintaldi honi buruz Arrasateko hainbat talderi eskatu nien eritzia eta erreportai bat egin nuen. Ondo geratu zela uste dut eta askoz gehiago ez dudanez idatzi, horrekin geratzen naiz.

• **Izan duzu inoiz arazorik idatzitakoagatik?** Momentuz ez, oso denbora gutxi daramat lan honetan eta.



**Kepa Oliden**

• **Korrespontsal izatearen alde txarra?** Egunero zerbait idatzi behar izateak sortzen duen lotura.

• **Idatzitako artikuluen artean gogokoena?** Gai historiko eta antropologikoen albisteak ditut gustukoen.

• **Izan duzu inoiz arazorik idatzitakoagatik?** Arrain tropikalen modari buruz erreportaitxo bat idatzi nuen eta denda bateko jabeak zenbait gauza esan zidan bera ez nuelako kontuan izan.

• **Kazetari gustokoena?** Manu Leguinechek jorratzen dituen gaiak gustatzen zaizkit; bere idazteko era ordea, ez.



**Itxaro Artola**

• **Korrespontsal izatearen alde txarra?** Orduz finkorik ez izatea eta egunero zerbait idatzi behar izatea; askotan ez da garrantziko gauzarik idazteko egoten.

• **Idatzitako artikuluen artean gogokoena?** Zerrajerako notizia eman beharrak asko poztu ninduen.

• **Izan duzu inoiz arazorik idatzitakoagatik?** Batzutan suertatu zait gauza desatseginak entzun beharra, baina gutxitan. Dena dela, lan honetan denetarik gerta daiteke.

• **Kazetari gustokoena?** Lehen Mariano Ferrer, orain ez dakit.



**Juan Luis Azkarate**

• **Korrespontsal izatearen alde txarra?** Egun osoan zehar jendearen atzetik telefonoz ibili behar izana, "Relaciones Públicas" en antzera.

• **Idatzitako artikuluen artean gogokoena?** Panerori egindako elkarrizketa, bosnioak etorri zirenean egin nuen erreportaia eta Arrasate-kanpo idatzitakoaz, Willy de Ville abeslariari egin nion elkarrizketa.

• **Izan duzu inoiz arazorik idatzitakoagatik?** "Indirektak" jasan behar izan ditut eta birritan mehatxatu naute epailearengana eramatearekin.

• **Kazetari gustokoena?** Manu Leguineche

joan behar zara eta zein komunikabidetan lan egiten duzun esan. Edozein informazio jasotzeko prest zaudela esan eta zure telefonoa eman behar diezu. Telefonoz deitzen dizutenean eta pista bat ematen dizutenean, orduan hasten da, modu batean esatearren, "ikerketa-kazetaritza" eta noski, albiste horiek politenak izaten dira" dio Kepa Olidene.

**Informazio-iturri "sekretoak"**

Gure korrespontsalek ez dute informazio-iturri sekreturik, edo behintzat, hori esaten dute: "Ez, nik ez daukat informazio-iturri sekreturik baina beti ezagutzen duzu nor-

bait daukazu informazioa aberastu dezakeena. Arrasateko udalak harreman handia du kazetariokin, agian ARRASATE PRESSEK markatu duen dinamika izan da eta horrek ere eragin gaitu" esaten du Itxarok. Juan Luisek gauza bera esaten du; iturri sekreturik ez baina jende ezaguna bai. Kepa Olidenek ordea, informatzaile sekreturik ez duela baina "asesoreak" badituela esaten du: "Konfidantzazko pertsonak, objetiboak eta kriteriodunak izaten dira".

Bestalde, korrespontsalen artean informazio-trukaketarik badagoen galdetzerakoan, harreman txiki bat beti dagoela aipatzen dute gutziek.

Urdin Elortza, El Mundo-ko korrespontsala, hasi berria da mundu honetan. Hogei urte ditu, oraindik kazetaritza ikasten ari da eta bi hilabete baino ez daramatza lanean. Bere artikulua astean behineko maiztasunaz agertzen dira eta Bergarako eta Oñatiko kronika ere idazten du: "Noizean behin telefonoren bat edo izenen bat eskatzeko, etabar deitu izan dut baina bestela, agian berria naizelako, ez daukat harremanik gainontzeko korrespontsalekin".

**Objetibitatea dela eta ez dela**

Benetako objetibitatea existitzen den galdetzerako-

an, ezezkoa erantzun dute. Itxaro Artolak dioenez, "askotan gertatu izan zait gauza bat ezin idatzi izatea; ez nire konbenientziagatik, baizik eta besteenagatik". El Correo-ko Juan Luis zehatzagoa da: "Niretzako objetibitatea ez da existitzen; matematika bakarrik da objetiboa". Kepak zera dio; "Korrespontsal moduan kondizionante batzuk ditugu; herrian bizi gara eta hemen denok ezagutzen dugu elkar. Kontuz ibili behar izaten dugu idazten dugunarekin". Urdinek gauza bera esaten du: "Objetiboa izaten ahalegindu behar gara baina benetako objetibitatea ez dela existitzen uste dut".

# Jon Sarasua

## Bertsolaritzaren garapenarerako apostua

Jon Sarasua EHBek antolatutako "Bertsolamintza" forumeko 2. ekitaldiaren partaideetariko bat da Pello Esnal, Xabier Amuriza, Andoni Egaña eta Joxerra Gartziaekin batera. Edizio honen helburua bertsolaritza ikertzea da eta horretarako bertsolari bakoitzak ponentzia bana prestatu du. Jon Sarasua bere ikerketaren eta edizio honen gainean "bertsolamintzatu" da.

— Zein da "Bertsolamintza"ren helburua?

— Bertsolariok erronka bat daukagu: bertsolaritza garatu eta ez dadila aintzina-ko ohitura bat bezala geratu. Bertsolaritza komunikatzeko modu bat eta kultura mota bat dela erakutsi nahi dugu; ez bakarrik euskeraz delako, baita komunikatzeko posibilitate batzuk dauzkalako ere. Beraz, bertsolari elkarte bezela, guzti hau aurrera eramateko apostua egin dugu eta ikerketa aukeratu dugu. Gaur egun kultura adierazpide bat ez badago unibertsitate edo ikerketa alorrean sartuta, hil egiten da. Kezka hori daukagunez, ikerketa aurrera eramateko bi urtean behin "Bertsolamintza" foruma antolatu dugu.

- Zure ikerketa edo ponentzia "Bertso berriak bertso berri" da. Zertan datza?

— Gaur egungo bertso idatziek berritasun bat badu-



tela adierazi nahi dut. Andoni Egañak atera duen diskoa eta ematen dituen kantaldiak aztertzen ditut, baita Igor Elortzak eta Unai Iturriagak Josu Zabalorekin egin duten diskoa ere. Disko eta emanaldi horiek zergatik sortu diren, zein ikuspegi eta posibilitate duten eta hortik abiatuta nora heldu daitezkeen aztertzen dut.

— Eta bide hori jarraituta, noraino?

.....

*"Ez dugu pentsatu behar zein izan zen bertsolaritza garbia, balio diguna hartu eta aurrera jo behar dugu"*

— Ni, kultur alorrean, esperimentazioaren aldekoa naiz eta bertsolariok, bertso idatzen alorrean bapatekoe-tan azaldu ezin dugun gaitasun bat badugula erakutsi nahi dut; hau da, askoz ere bertso landuagoak egiteko gai gara eta bertso horiek zinta edo zuzeneko emanaldietan bota ditzakegula erakutsi nahi dut. Genero edo azpi-genero berri bat sortzen ari dela uste dut. Bertso musikalizatuaren hil-

doa landuko nukeela esaten dut, hau da, bertsoak musikarekin baina musika berezi batekin, bertsoen erritmoari egokitutako musika batekin.

— Bertsolaritzan azkenaldian ematen ari diren berri-tasunengatik ez balitz, bertsolaritza desagertzeko arriskuan legoke?

— Euskal Herrian ohi-turak zuzen-zuzen betetzen ditugu edo bestela gurea dena mesprezatu egiten dugu. Kanpotik datozen gauzak onak direla uste dugu, euskeratu egiten ditugu eta gustora geratzen gara. Nire ustez hori ez da bidea; guk dauzkagun gauzetan balore handiak ditugula uste dut, beraz, tradizioa garatu behar da. Bertsolaritzarekin gauza bera egin behar dugu; ez dugu pentsatu behar zein izan zen bertsolaritza garbia, balio diguna hartu eta aurrera jo behar dugu.

— Zerk edo nork inposatu du bertsolaritzaren aldaketa: bertsolariak ala egoerak?

— Neurri handi batean egoera eta beste neurri handi batean bertsolaria izan dira aldaketaren sortzaile. Gauza berriak egiteko gogoia eta ahalmena izan duen belau-naldi bat etorri da, mezu berriak eman eta jende berria erakarri duena. Ezin die-zaiokegu meritua inori atxekitu baina aldaketaren faktoreak bietan daudela uste dut.




**LORATEGI "BAR"**

Iturriotz, 7 **ARRASATE**

Tfnoa: 79 04 67

**PUB HAIZEA**



ARRASATE

# 'Carmina Burana': Luxuzko kontzertua Amaia Antzokian

**M**aiatzaren 28an eta 29an arratsaldeko 8etan Goikobalu Abesbatzak eta Errusiako Orkestra Nazionalak, Carl Orff-en Carmina Burana obra eskainiko dute Amaia antzokian. Ehun eta hirurogei eta bost abotsek kantatuko dute obra: 75 emakumek, 50 gizonen eta 50 umek. Musikariak berriz, ehun izango dira, guztiak musiko bakarlari profesionalak eta Jesus Maria Etxeberria nafarrak zuzenduko ditu abesbatza eta orkestra.

## Goikobalurentzat erronka; Arrasaterentzat luxua

J. Bautista Agirrerren ustez, "Arrasatearrak ez dira konturatzen duten loteriaz. Errusiako Orkestra Nazionala munduko onenatariko bat da eta munduko koro onenak egoten dira hauekin kantatzeko desiratzen. Guk ordea, hona etorri nahi izan dutelako kantatuko dugu eurekin. Musikari hauek birritan izan dira hemen eta akademiako partaideekin eta Goikobalukoekin erabat adiskidetu direnez, euren gogoz etorriko dira berriz Arrasatera."

Emozionatuta daude Goikobalukoak eta ez da arraroa, honelako prestigioa duen orkestra batekin abestea erronka garrantzitsua da eta.

Bestalde, Arrasate Musikalekoak kalitate handiko



Kontzertu bikaina eskainiko dute errusiar eta arrasatearren artean.

kontzertua ia ia musutruk eskainiko diote herriari. Kontuan izan behar da Errusiako Orkestrak ez duela ezer kobratuko hona etortzeagatik, gainera, sarrerak 1.500 eta 2.500 ptan salduko dira, Estatuan zehar egiten ari diren biran sarrerako kobratzen ari diren 10.000 eta 15.000 pten ondoren. Guzti hau Arrasate Musikalek eta Goikobaluk duela urte ugari Alfaro Musica eta Eduardo Clausen Zubiriarekin daukaten harremanari esker da posible.

## Diru laguntzak

Goikobaluko emakumeek jantzi berriak estreinatuko dituzte Carmina Burana obran. Jantzi hauen eta orkestrako partaideen dieta gastuen zati

bat Kutzak, MCCk eta Euskadiko Kutzak ipini duten diruari esker ordainduko da. Sarreretatik aterako den dirua ordea, Arrasate Musikalera joango da oso osorik.

Goikobalukoak urtarrilean hasi ziren entsaiatzen Ruiz de Alegriaren zuzendaritzapean eta 21ean entsaio orokorra egingo dute. Estreinu eguna 27an Gasteizen izango da eta 28 eta 29an Arrasaten kantatu ondoren, 30ean Donostiako Victoria Eugenia antzokian eskainiko dute obra.

Carmina Burana obrak orkestra handi bat eskatzen du: bi piano, perkusioa, 3 solista, 120 ahots eta 50 ahotseta. Mikhail Pletnev da orkestra honetako zuzendaria, Errusiako Orkestra Nazionalaren

sortzailea izan zen. Orkestra honek 2. Gerrate Mundialaren amaierako 50. urteurrena ospatzeko, Berlin eta Parisen eman zuen kontzertua Estatu buruen aurrean.

Juan Bautista Agirrek azaldu duenez, "Jendeari Carmina Burana obra gustatuko zaio, oso ezaguna da eta gainera ederra. Obra honek maitasunari, tabernari eta diruari kantatzen dio. Entsaioak ondo doaz eta kontzertua txukun aterako zaigula uste dut".

Sarrerak maiatzaren 22tik 29ra bitartean egongo dira salgai: 22tik 26ra Arrasate Musikalen, 26tik 28ra Mendi Tabernan eta 27tik 29ra Amaiakotakilan. 6etatik 8etara eskuratu ahal izango dira sarrerok.

## Jesusi Etxebarria MUSIKA ESKOLA

1995-96 ikasturteko matrikula epea zabalik  
maiatzaren 15etik ekainaren 19ra arte

SOLFEO, ABESBATZA, ARMONIA, PIANO, AKORDEOIA,  
KITARRA, FLAUTA ETA TXISTUA

Iturriotz, 32. etxabea ARRASATE Tfnoa: 79 17 67




**Taberna-jatetxea  
Kafetegia**

- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburesak, sandwichak,...

Prezio guztiz eskuragarriak!!

Larrea enparantza, 5 behea Tfnoa: 77 01 69



skolako argazki normala dirudien arren, urte eta hilabete berezi batean ateratakoa da. 1968ko maiatzean Musakolako eskolan ikasten zuten mutikoak ziren, Parisen gertatzen ari zenaren berri gehiegi barik, seguruenik.

OHoko 2. eta 3. mailan zegoen taldea zen. Guztira 73

ziren, baina asko falta dira argazkia atera zuten momentuan. Erretratu gilea pasa zela aprobetxatuz jaso zuten oroi-garri hau.

Taldean mutilak bakarrik ziren arren, goiko pisuan beste hainbeste neska zegoen. Handik lau urtera egin zen eskola mixtoa, neskak eta mutilak nahasi.

Taldeko mutilek eurek ere ez dute denen izenik jakiterik lortu, eta ezagutu ahal izan ditugunak bakarrik jaso ditugu, gainerakoak irakurleak asma ditzan utziz.

Goitik eta ezkerretik hasi-

ta, Santi Santa Maria, Saturnino Lopez, Jose Luis Egia "Txikote", Claudio Merchant "Kako", Elicio Sierra, Miguel Ariznabarreta, Pablo Sebastian, Juan Ramon Mauleon eta Manolo Sebastian irakaslea.

Jose Andres Urrutia "Galarra", Eusebio Elorza, Aitor Madinabeitia, Jose Cortes, J.M. Palencia, Francisco Jabier Muñoz eta Pedro Miguel Lopez.

Pablo del Palacio, Luis Zabala, Losada, Josu Larrañaga, Jesus Agirre, Andoni Barrena, Jose Antonio Aier-

be "Txirri", Aitor Bolinaga eta Ramon Sebastian.

Bellido, Juan Jose Maltras, Joakin Ugarte eta eseritako en artean, Iglesias, Guillermo Dávila, Martinez eta Felix Aranegi. Alboan zutik, Roberto Garai "Gobi" eta Roberto Errasti.


Barrenean jarrita, ezkerretik hasita, Juan Pedro Tamames "Txiki", Carlos Olivenza, Carmelo Zubillaga "Tame", Ramon Martinez, Luis Mari Zugasti, Jabier Nafarrate, Delgado, Mateo Estrella eta Martin Garcia Rubio.

**ARRASATE TELEBISTA**  
**ATB Berriak: Informatiborik ikusiena**  
**Publizitatea: ☎ 77 08 15**

Z E R N A H I A G O ?

## Ane Aranbarri

### “Halcón Bidaiak” ekoa



- **Zenbat kontsulta atenditzen duzu egunean?** Garai honetan hamabost edo hogeiren bat egunro.
- **Estatuan zein leku dago modan oporretarako?** Betikoa, irlak.
- **Eta atzerrian?** Karibea.
- **Zuk nora ez zenuke bidaia egingo?** Irak edo inguru horretara.
- **Zer egiten duzu etxera heldutakoan?** Lasai eseri eta gero afaldu.
- **Gonak ala prakak?** Prakak.
- **Pentsatu duzu nori eman botoa maiatzaren 28an?** Bai.
- **Makilatzen zara?** Ez.
- **Nori idatzi zenion azken gutuna?** Ez dut gutunik idazten; telefonoz hitzegiten dut.
- **Mutil-lagun asko izan duzu?** Ez.
- **Hegazkinari beldur diozu?** Ez.
- **Jantzi estuak ala zabalak?** Estuak.
- **Haurtzarotik gordetzen duzun oroitzapen politena?** Klasetik Santanderra egin genuen eskursioa.
- **Burukoaz edo barik egiten duzu lo?** Buruko barik.
- **Nolakoak dira zure oheko izarak?** Loradunak.
- **Polita iruditzen zaizu Halcón-eko iragarkiko neska?** Ez.
- **Arrasateko taberna bat?** Gure Leku.
- **Erosi duzun azken arropa?** Udarako praka batzuk.
- **Zein irrati emisora entzuten duzu?** Arrasate Irratia.
- **Gustatzen zaizu?** Bai, asko, oso ondo dagoela uste dut.

LABURRAK

### Matrikula zabalik

Jesusi Etxebarriaren musika eskolan, zabalik dago matrikulazio epea. Eskola honetan 4 urtetik gorako umei ematen zaizkie klaseak, baita musikarekiko afizioa duten edozein adineko pertsonari ere. Solfeo, kantu Korala, armonia, pianoa, akordeoia, kitarra, flauta eta txistu klaseak ematen ditu Jesusik. Matrikulazio epea ekainaren 19ra arte dago zabalik, arratsaldeko 4etatik 9etara. Matrikula akademian egin daiteke, Iturriotz kaleko 32. zenbakian.

### Kartelak biltzeko kanpaina

AEDko Euskalan taldeak, euskararen aldeko kartelak biltzeko kanpaina bati ekin dio. Kartel hauek lantegietan jartzeko izango dira eta langileei euskeraz egitera bultzatzeko mezua izan beharko dute. Jasotako mezuak argitaratu egingo dira. Teknika, materialak, neurriak etabar, libreak izango dira. Kartel hauek entregatzeko epea uztailearen 3an bukatuko da eta lanak AEDra bidali behar dira.

**VE ECUADOR**

Bidaiak

**Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!**

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06



*Kalitate gorena lehioetan*

**LANTEGIA ETA ERAKUSKETA**


Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

• ESAERA •

“Umiltasuna  
jakinduriaren  
osagarririk onena da”


FONTENELLE

• JEROGLIFIKOA •



Begietan ateratzen da.

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Jabi, maratoilari arrasatearra. 8. Anbulantzia. 9. Zamorako ibilgailuetan. 10. Heldu. 12. Autore. 14. Iparretarrak. 15 (Ald.) Azkar, agudo. 16. Bazkari arrunta. 17. Musulmanen jainkoa. 18. (Ald.) Arto-irinez egindako opila. 19. Ahaide.

**Bertikalak** 1. Artisten babesle. 2. Eragiten duena. 3. Negu. 4. Ohol. 5. Apala, harrokeriarik gabea. 6. Ate, hitz elkartuetan. 7. Kotizatu aditzaren infinitiboa. 11. Ezeztatu. 13. Asiako estatua, lehen Pertsia. 16. Garau. 18. (Ald.) Musika eskalako 1. nota.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Urteak aurrera doaz eta zu: gero eta umeagoa.

**Taurus** Telegrama bat jasoko duzu laster, baina berria ona izango da.

**Gemini** Egunero bero-bero. Zein espezie botatzen diozu janariari?

**Cancer** Txiklea irensten baduzu haurdun geratuko zara.

**Leo** Sasoian egoteko kiwiak jan behar dituzu.

**Virgo** Aldamenean bizi denaz ondotoxo konpontzen zara. Ez zarete maite-mindurik egongo?

**Libra** Telebista, irratia, kafetera... guztia izorratuko zaizu.


**Scorpio** Esango banizu zenbat jende botatzen zaituen faltan!

**Sagittarius** Zer, nola, zergatik? Zuretako galdera askotxo, ezta?

**Capricorn** Negua joan da. Gorputzeko ileak kentzeko garaia da.

**Aquarius** Beti etzanda egoten zara. Ahul samar ikusten zaitut.

**Piscis** Hori umorea! Nabari da bikotea aurkitu duzuna.



**WERU®**  
Ate + leihoak




Markulete Industrialdea, 20. pabilioia  
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik...



TELEBISTAREN TXOKOA



# Hauteskunde-mahaingurua

**J**oan den osteguneko udal-hauteskunde mahaingurua motz geratu zela eta, datorren ostegunean beste mahainguru bat antolatuko da Arrasate Telebistan. Hizlariak berberak izango dira eta Mikel Irizarrek zuzenduko du mahaingurua. Alder-

di bakoitzaren hauteskunde-programa eta azken agintaldi honetan herrian zein udal-letxean gertatutako gorabeheren inguruan eztabaidatuko dute alkategaiek. Informatiboen ondoren, 9.30etan hasiko da programa eta 10.30ak arte iraungo du.

KOMIKIA



PROGRAMAZIOA



21 Igandea

21.00etan  
Mondragol. Itxaro Zubillagak aurkeztutaa.

22 astelehena

20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Mondrasport

23 Asteartea

13.30etan  
Mondrasport (errep.)  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Laburmetraia

24 Asteazkena

13.30etan  
ATBketan (errep.)  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Laburmetraia

25 Osteguna

13.30etan  
"Udal-hauteskundeak Aretxabaletan" errep.  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
"Hauteskunde-Mahaingurua" Alderdi politiko guztietako alkategaiek hartuko dute parte.

26 Ostirala

13.30etan  
"Hauteskunde-Mahaingurua" (errep.)  
19.50etan  
Kukaratxa Motel  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Astebete  
22.00etan  
Marrazki Bizidunak

SOLUZIOAK

Lausoa.  
Jeroglifikoa:  
Ale. 18. Od.  
7. Kotza. 11. Ukau. 13. Iran. 16.  
le. 3. Ni. 4. Taula. 5. Xume. 6. Ala.  
Bertakal: 1. Mezenas. 2. Eragi-  
18. Olat. 19. Sende.  
le. 14. IK. 15. Nira. 16. Aza. 17. Ala.  
Ertau. 9. Za. 10. Umatu. 12. Egi-  
Horizontalak: 1. Mentxaka. 8.



**MAIZPIDE**  
euskaltegia

Tfnoa: (943) 88 92 31/32  
LAZKAO

XXI. UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

- Uztaileko ikastaroak: 3-21
- Abuztuko ikastaroa: 1-25
- Iraileko ikastaroa 4-29

MATRIKULA:

Maiatzaren 9tik aurrera  
HABEren dirulaguntzaz

## Etxebizitzak

- **Torreviejan apartamentua** saldu edo udarako alokatzen da, pizina eta guzti. Tfno: 79 53 18.
- **Zarautzen uda partean** pisua alokatzen da. Tfnoa: 42 46 85 edo 83 14 87. Maite.
- **Donostian uda partean** pisua alokatzen da. Tfnoa: 42 46 85 edo 83 14 87. Nati.
- **Laredon uda partean** etxebizitza alokatzen da. Interesatuok dei egin iluntzean 79 31 47 tfnora.
- **Peñiscolan pisua alokagai** hondartzatik gertu. Tfnoa: 79 57 31.
- **Torreviejan apartamentua** alokatzen dut asteka edo hamabostaldika. Guztiz jantzita dago eta hondartzaren ondoan. Tfnoa: 78 14 72.
- **Garaje itxia salgai.** 20 m<sup>2</sup>. Urbarri etorbidean. Pal ferreteriaren azpian. Tfnoa: 79 54 03.
- **Etxebizitza salgai Uribe auzoan.** Tfnoa: 79 30 72.
- **Bi heko gela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73
- **Pisu bila ari gara.** Eskola Politeknikoaren ondoran bada hobe. Lau-bost lagunendako. Tfnoa: 18 03 78 (astebukaeratan deitu).

## Lana

- **Unzueta jatetxeak** hurrengo lanpostuetarako personak behar ditu: sukaldari laguntzailea, kamarero eta asteburuetarako laguntzailea. Dei egin (945) 44 50 95.
- **Esperientziadun emakumeak** etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 31 58.
- **Ingeleseko klase partikularrak** ematen dira. Esperientzia eta talde txikiak. Tfnoa: 79 28 80.

• **Gaztelarazko ipuin bat** euskaratzeko norbait behar dut. Tfno: 715331.

• **Andra erizain** auxiliarra eta esperientziadun gerokultora pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfno: 79 34 53.

• **Neska bat behar da** dendan lan egiteko; interesatuta dagoenak sobre batean bidal ditzala, bere datu pertsonalak, telefonoa eta esperientzia laborala. Aptdo 34 Eskoriatza, 20.550.

• **Maila guztiko ingeles klaseak** ematen dira; baita azterketak prestatzen lagundu ere. Tfno: 79 53 40.

• **Lanak ordenadorez pasatzen dira** eta itzulpenak (ingelesezik-gaztelarara, gaztelaratik-ingeleseara) egiten dira. (kanadiarra). Tfno: 79 53 40.

• **Astebukaerako Dukiena** jatetxeak zerbitzari baten beharra du. Harremanetarako dei egin (945) 44 50 86.

• **Esperientziadun neska** bat eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 71 44 27. Rakel.

• **Neska pres** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 71 48 50.

• **Emakume euskalduna** etxeak garbitu eta umeak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.

• **Esperientziadun neska** umeak zaintzeko prest. Dei egin arratsaldeko 4ak arte 79 77 94 tfnora.

## Salerosketak

• **Ford Fiesta XR2**, SS-Y salgai prezio onean. Tfnoa: 71 42 19.

• **Kotxea salgai:** Opel Corsa Swing SS-6501-V. Oso egoera onean. Deitu Tfno: 770281.

• **Txakurkumea emango diot** nahi duenari pastor aleman arrazako umea da, martxoaren 31n jaio-takoa.

• **Karro denda** bat erosi nahi dut. Tfno: 79 55 88. Betatik aurrera deitu.

• **Suzuki DR-BIG 50** c.c salgai. Tfno: 782979. Iban.

• **Ford Transit** salgai. 100.000 kilometro ditu. Prezio eta egoera onean. Tfno: 714894. Joxe Mari.

• **Kotxea amildegitik behera**, soloik-solo joan zaidalako aldatu beharra daukat. Kotxe on bat baldin badaukazu, aukeran gogorra eta ahuntz samarra dei egidazu. Tfnoa: 79 76 92. Juanito

• **Siberian Husky arrazako** txakurkumeak salgai. Tfnoa: 79 09 54.

• **Kotxea salgai.** Opel Corsa Swing. SS-U. Oso egoera onean. Dei egin: 77 02 81.

• **Sukaldeko altzariak salgai**, sukalde eta ekonomika eta guzti. Egoera onean eta merke. Jangelako altzariak ere salgai. Deitu eguerdian edo gauen 79 01 66 tfnora. Arantzazu.

## Denetarik

• **Betaurreko graduatuak** galdu egin dira (Olarretik Udaletxera bidean). Norbaitek aurkitu baditu dei dezala. Tfno: 78 27 43 honetara mesedez.

• **Apirilaren 29an** eraztuna galdu zitzaidan azokan. Eraztunak 3 brillante eta 4 rubi ditu. Tfno: 79 00 04.

• **Gasteiza joaten naiz egunero**, eta goizeko Betaurako bertan egon behar dut. Norbaitek joateko autoa nahi badu. Tfno: 79 80 91. (Gauetz deitu).

• **Joan den larunbateko** SFX-eko abesbatzen topaketetan klabeek betetako kaxa bat desagertu zen, Amaia antzoki inguruan. Norbaitek ikusi badu, mesedez San Frantsisko Xabier-era dei egin dezala. Tfno: 79 64 79.

• **Musika talde bat**, beste talde batzuen bila dabil lokal akondionatu bat konpartitzeko. Tfno: 799134. Miguel.

# Aste Gazte

### Bekak

• Merkataritza, kontsumo eta turismo sailburuak, atzerri merkataritzaren arloan adituak prestatzeko 25 beken deia egin du. Lizentziatuei zuzenduta. Ingelesa menperatzea ezinbestekoa da. Epea: maiatzak 31.

• "CEOE Fundazioak/Fulbright" 96-97 ikasturterako, kazetaritza arloan (prentsa, irratia eta telebista) ikasketak hedatzeko beken deialdia egiten du. Lizentzia-

tuei zuzenduta. Ingelesa menperatzea derrigorrezkoa da. Epea: ekainak 9.

• "Spain-Usa 2.000" edozein alorretan ikasketak zabaltzeko 12 beka. Lizentziatuei zuzenduak. Ingelesa menperatzea nahiztaezkoa da. Epea: ekainak 16.

### Lana

• Arabako Foru Aldundi-ko, Gizarte-ongizate sailak hainbat lanpostu kaleratu du. 14 erizain laguntzaile, gizarte

laguntzaile 2, erizain 1, 7 sukaldaria laguntzaile, liburategiko teknikari 1, fisioterapeuta 1, tailer arduradun 1, elbarritu-hezitzaile 4, hezitzaile 1, 4 monitore, 2 sendagile-geriatra, psikologo 1, administrari 1... Epea: maiatzak 29.

### Lehiaketak


• Donostiako Udalaren Gazteria Sailak, "Zu ez zara izarra" argazki lehiaketa antolatzen du. 16-26 urte bitartekoei zuzendua. Ez dio axola zuri-beltzean edo koloretan izan, ezta formatoak ere, guztiak balio dute. Epea: maiatzak 31.

**"...azken finean, hirurogeiko hamar-kadakook betiko gazte izango ginatekeela pentsatu genuen"**

**TERENCI MOIX  
"EL PAIS"**



**Informazio gehiago:  
GAZTE ZERBITZUA  
Tfnoa: 77 00 65**



*Jose Aranzabal*

**ELEKTRAGAILUAK:** Iturriotz, 15 • Tfnoa: 79 15 16  
**SUKALDE ALTZARIAK:** Bañez Doktorea, 2 • Tfnoa: 79 18 92  
**ARRASATE**



# OPEL VECTRA BERRIA

## merit



## GUTXIK EMATEN DUTE HAINBESTE HAIN GUTXIREN TRUKE.

115 CVko 2.0i alemaniar batek adina, Opel injinerutza Alemaniar ospetsuak indartua. Zuk merezi bezalako ekipamendua: **Direkzio lagundua, pretentsoredun segurutasun uhalak, alboetako segurtasun-barrak, itxitura zentralizatua, leihoak isteko elektricoa, atzekaldeko jarlekuetan ere burua etzatekoa, antena elektrikoa...** ikusteko zein berba egiteko hainbeste emango dizu, ezin zara Opel Banatzailearengana probatzera etorri barik geratu. Izan ere, sekula ez duzu hain gutxiren truke hainbeste jaso.

OPEL VECTRA MERIT BERRIA. BERE PREZIOA MERITU HUTSA DA.

OPEL 

Z U R E   Z A I N   G A U D E

**TALLERES OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)  
Zerbitzu Oficiala ARRASATEn

**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL BANATZAILE OFICIALAK, ESPERIENTZIAZ ONENAK.